

KRONIKA:

Palestinarren begiradetan
irakurritakoaren kontakizuna > 7

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Krimea, hain ezberdin... eta orain
hain berdin?

MIKEL ZUBIMENDI > 11

2014ko martxoaren 22a | VIII. urtea • 358. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MATXIO, XENPELARREN AURPEGIA

JUAN FRANTZISKO PETRIARENA "XENPELAR" GAZTERIK HIL ZEN, 34 URTE ZITUELA. ASTIA IZAN ZUEN BERTSO BIDE OPAROA IBILTZEKO, BAINA EZ BERE IRUDIRIK GERORAKO UZTEKO. ANTONIO VALVERDEK "XENPELAR" MARGOA EGITEKO ANTONIO LEKUONA "MATXIO" OIARTZUARRA HARTU ZUEN EREDU. > 12 Ikor KOTX

Legez kontrako zabortegiek italiar nekazariak kaltetu dituzte 04

Sei begirada Palestinatik 07

«Matxio», Xenpelarri aurpegia jarri dion oiartzuarra 12

Azart zoroen itsasontziak Trintxerpen du orain egoitza 17

e.lkarrizketa: Mikel Lasa poeta eta margolaria 22

Antton Elvis kanpaina saritu dute Smile Festival-en 26

In Fraganti: Mikel Sanjuan tailugilea 28



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Etxera bueltatuko gara
06 **Unai Belaustegi:** Euskaldunon Mekak
10 **Oier Gorosabel:** Zaharren egoitzen alde ezkutua
11 **Mikel Zubimendi:** Krimea, hain ezberdin... eta orain hain berdin?
19 **Joseba Otondo:** Banderak eta gorbatak
20 **Nagore Amondarain:** Umorearen kode etikoa?
21 **Mikel Soto:** Transnazionalismoa
25 **Xabier Mikel Errekondo:** Sukaldean ala ohean
31 **Ander Izagirre:** Munstro ehiza Donibane Lohizunen



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZAK
DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Etxera bueltatuko gara

Etxera bueltatuko gara», esan zuen Krimeako emakume batek erreferendumaren emaitzak ospatzen. Horrela edo beste modu batean adierazita, Krimeako herritarren mezua argia zen: gure herrira bueltatuko gara. Logikoa da: errusiarra da gehiengoa penintsula horretan. Beste nazionalitateko herritarrek ere Errusian hobeto biziko direla pentsatzen dute.

Harrigarria izan da Europako zenbait «intelektualek» Krimeako erreferendumaren aurrean izan duten erantzun bortitza. Ez ote da Europa demokraziaren adibidea? Zertara dator horrelako erreakzioa? Erretxinduta daude Europa inperialista baten aldeko ideologoak direlako, eta erreferendum txiki batek agerian utzi du euren jarrera antidemokratikoa. Dena den, Krimean gertatutakoa eta, neurri handi batean, Ukrainan, Europaren mendekotasun politikoaren ondorioa da.

Ameriketako Estatu Batuek, presidente batekin edo bestearekin, oso argi izan dute Europa eta Errusiaren arteko edozer hurbilketa oztopatu behar dutela. Beldur dira Europa eta Errusiar Federazioaren arteko elkar ulertzeak denborarekin potentzia indartsua osatuko duela eta beren hegemonia zalantzan jarriko duela. Eta joko horretan daramatzate azken hogeitazazko urteak.

Maniobra horien adibide hurbila dugu: NATOk Polonian eta Errumanian misilen aurkako bateriak ezarri zituen. Erabili zuen aitzakia izan zen Iranetik etor zitekeen balizko eraso baten aurrean Europa babesteko beharrezkoak zirela. Errusiarrek beti esan dute arma horiek beraien aurka zabaldu zirela. Azaroan ezagutu dugu Iranek energia nuklearraren inguruko akordioa sinatu zuela G5+1 taldearekin. Akordio horren haritik, Errusiar Federazioak eskatu zuen arma horiek erretiratzea orain arte aipatu mehatxua indargabetuta gelditzen zelako. Estatu Batuetako defentsa idazkari Chuck Hagelek ukatu egin zuen aukera hori. Jarrera horrekin nolabait arrazoia eman zion Errusiar Federazioari. Estatu Batuek, NATOren bitartez, Errusia Europatik isolatzeko estrategian jarraitzen dute. Bazter batean, bakarrik, utzi nahi dute. Horrek segurtasun eza sortzen dio Errusiarri, Europatik inbasioak ezagutu baititu bere lurraldean behin baino gehiagotan.

Testuinguru horretan, Europak ondoko bizilagunarekin politika propioa garatu beharko luke, bere interesetatik abiatuta, bere mugetan gatazkak ekiditeko, alegia. Horrek eskatuko luke Europa eta Errusiaren arteko auzotasun espazio bat sortzea eta garatzea; hau da, alde anitzeko akordio bidez guztien segurtasuna bermatuko duen eremu bat jostea. Hala ere, politika propioa egin beharrean, Estatu Batuen jokoa jarraitzen dute itsu-itsuan Europako buruzagiek.

Finean, Errusia Europara hurbildu beharrean, urruntzen ari dira eta horrek, batetik, kezka handia sortzen du Errusian, eta, bestetik, bien arteko tartean gelditzen diren estatuak eta herriak bi potentzia horien borroka zelai bihurtzen dira.

Eta tarte horretan dagoen estatu handiena Ukraina da. Azken hilabeteetan, Europako buruzagi arduragabeek matxinada bat bultzatu dute Kieven. Horretarako, ultras-kuineko indarrekin aliatu dira. Azkenean lortu dute go-

Europako buruzagiak Errusia Europatik urruntzen ari dira. Horrek kezka sortzen du Errusian eta bien arteko estatu eta herriak gudu zelai bihurtzen ditu

bernua iraultzea, baina konturatzerako gobernu berriaren gaineko kontrola AEBek hartu dute. Ordutik aurrera, Europa lekuz kanpo egon da.

Gatazka garrantzitsua sortu dute Ukrainan, tokiko baldintzak kontuan hartu gabe; beharbada, hori zen bilatzen zutena, estatua zatitzea, alegia. Krisi horretan errusiarrek ulertu dute Europak orain arteko joko arauak pikutara bidalitu duela, eta beraiek ere bere estrategia propioa martxan jarri dute. Badakite egoera txarragoan daudela, baina hiru helduleku dituzte beren interes estrategikoak babesteko eta erabili egingo dituzte: armada, horrelako gatazketan aritzeko prestatuta dagoena; baliabide naturalak eta errusiarrek osatzen dituzten gutxiengoak beste estatuetan.

Europako buruzagiei esker, beste gatazka luze bat sortu da Europako mugetan. •

ZABORTEGIAK ITALIAN

Campaniako eremu batzuetako nekazaritza produktuak saltzea, debekatuta

 **GIZARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Campaniako eremu batzuetako nekazaritza produktuak saltzea debekatu egin du Italiako Gobernuak, kutsaduraren eraginez. Suen Lurra deitzen dioten lekuan Camorrak hamarkada askotan egin ditu legez kontrako isurketak, eta herritarrek ordaindu behar izan dute faktura, minbizi eta malformazio kasuek gora egin baitute.

Debekua une honetan bertan hasten da. Berehalako neurria da. Produktu horiek merkatura iritsiko dira, baldin eta beharrezkoak diren proba guztiak egiten badituzte, ez bestela. Arazoaren muinera iristeko gogoia erakusten dugu era horretan,

eta arazo horren eraginez sekulako estutasuna jasaten ari diren herritarrei ziurtasun apur bat ematen diegu». Beatrice Lorenzi Osasuneko ministroaren hitzak dira, Campaniako legez kontrako zabortegeiek eta suteek eragin duten arazo larriari aurre egiteko hartutako neurriaren berri emateko ekitaldian esandakoak. Edonola ere, oraindik

Suhiltzaile bat lanean Suen Lurrean, Campanian. Italia osoko industriak sortutako hondakin ugari eskualde horretan isuri izan dira hamarkadatan.
GAUR8

hiru hilabete inguru beharko dituzte zer eremutako produktuak debekatu erabakitzeko. Izan ere, fruta eta barazki ekoizpena hain garrantzitsua den Campanian egin berri den ikerketa baten arabera, 51 udalerrik premiazko neurriak hartu behar dituzte jasaten duten kutsadurari aurre egiteko. Eskualdeko 1.076 kilometro koadro aztertu dituzte eta horietako %2k eragin dituzte susmoak.

Gobernuak onartutako dekretuaren arabera, hemendik aurrera nekazaritza produktuen arriskugarritasuna 1etik 5era doan eskala batekin neurtuko dute. 3tik gorako arriskugarritasuna duten fruta eta barazkiak saltzea debekatuta egongo da, herritarren osasunerako kaltegarriak direlakoan.

«Eremu horretan bizi diren herritarren mesedetan, Suen Lurra lehenbailehen berreskuratzea da Gobernu honen misioa»,



adierazi zuen ekitaldi berean Gian Luca Galletti Ingurumene-ko ministroak, Maurizio Martina Nekazaritzako ministroa, Stefano Caldoro Campaniako presidentea eta Beatrice Lorenzin ondoan zituela.

Gaur egun agintariek ere erabiltzen duten Suen Lurra terminoa Legambiente erakunde ekologistak sortu zuen orain hamaika urte, 2003an, "Ekomafiari buruzko txostena" izenburuko lana aurkeztu zuenean.

Egun herritar guztiek dakite Tirreniar Itsasoaren ertzean dagoen eremu bati buruz ari garela termino hori erabiltzean. Bertan turismoak garrantzi handia izan arren (Napoli, Vesuvio, Capri, Ponpeia, Herkulano eta Paestum, esaterako, turistak erakartzeko propio diseinatuta daudela dirudi), leku hori oso kutsatuta dago herrialde osoko industriak eragindako hondakin toxikoak legez kontra bertan isuri izan direlako, gutxienez hiru hamarkadatan.

Ekologistek askotan salatu dute Camorra Napoliko erakunde mafioso dela isurketa horien arduraduna.

Datu ofizialen arabera, Italia osoan 100 milioi tona hondakin sortzen dira urtean, eta kopuru ikaragarri horren heren bat litzateke Camorrek «ezkutatutakoa». Italiako iparraldeko industriak sortutako hondakin toxikoak Campaniako zabortegetara eramateagatik dirua kobratzen zuten talde mafiosoek. Batez ere Giugliano herriko Resitera eramaten zituzten.

Hondakinen kudeaketa ia arautu gabe zegoenez, irabaziak lortzeko eta diru beltza zuritzeko aukera paregabea eskaintzen zuen jardura horrek.

Eta ekologistek egoera hori bere onera ekartzearen beharra askotan nabarmendu badute ere, agintariek ez diete jaramonik egin nahi izan. «Ez dute ezer entzun nahi», zioen orain hila-bete pare bat Antonio Pergolizzi Legambiente-ko kideak.

Hondakin solidoei buruzko Italiako legedia 2001ean onartu zuten, baina hondakinak era egokian kudeatu ote ziren baieztatzeko araurik gabe. 2006an al-



Hemendik aurrera, nekazaritza produktuen arriskugarritasuna 1etik 5era doan eskala batekin neurtuko dute.

GAUR8

datu zuten legea, ingurumena- ren aurkako beste 152 delitu sartzeko; esaterako, zaborrak legez kontra ezabatzea.

Handik lau urtera jakin zen Europar Batasunaren legedia urratzen zutela Napoli garbitzeko hartutako neurriek. Bruselak ikuskaritza talde bat bidali zuen Campaniara 2010ean bertan eta, 2012an, Italiaren aurkako salaketa epaitegetara eramateko aukera aipatu zuen.

Arautu gabeko edo gaizki araututako sektorea izanik, negozio egiteko aukerak handiagoak izaten dira. Napolin bertan Greenaccord gobernuz kanpoko erakundeak kazetariatzat antolatutako nazioarteko topaketetan Pergolizzik salatu zuenez, «ekomafia harrobietan, lurrian eta uretan gai toxikoak isurtzen ari da, ingurumenari eta akuiferoei eragindako kalteei erreparatu gabe eta komunitateari ondorio larriak eraginez».

Roberto Saviano kazetariak egoera hori deskribatu zuen 2006an "Gomorra" liburuan. Honela zioen Joxean Agirrek 2008an GAUR8-n: «Camorrari buruzko liburu bat argitaratu zuen orain bi urte "Gomorra" izenburuarekin eta geroztik ez du bakerik izan. Napoliko mafia- ren ezkutalekuak argitu zituen liburu horretan eta bere legez kanpoko jarduerak agerian utzi. Baina izen-abizen gehiegi agertzen ziren nonbait orrialde horietan eta Camorrek mehatxatu egin zuen. Geroztik bizkartzainekin ibili behar izan du».

Gaur egun ere Camorraren mehatxupean bizitzen jarraitzen du, Italiatik kanpo, New Yorken, hain zuzen ere.

Savianok eta Pergolizzik salatu- toko egoera horri esker, konpainia askok negozio egin dute Italian urte askotan. Franco Roberti Mafiaren aurkako abokatuak esplikatu izan duenez, enpresei merkeago ateratzen zitzaizen talde mafiosoek hondakinak «ezabatzeagatik» ordaintzea, hondakin horiek behar den moduan tratatzea baino. Kasu batzuetan, atzerrira legez kontra bidaltzea ere merkeago ateratzen zen. Eta negozio egiteko aukera ikusten denean, zalantza



etikoak desagertu egiten dira kasu askotan, salaketa publiko-rik ez badago behintzat.

Robertik marraztutako koa-droaren arabera, gaur egun tal-de mafiosoek hondakinekin ze-rikusirik ez duten sektoreetan ere diru asko sartzen dute. «Di-rua garbitzeko asmoarekin, fi-nantziazioa behar duten kon-painiak bilatzen dituzte. Italiako ekonomia garbia gero eta ziki-nago dago», dio. Energia garbien ekoizpena garatzeko proiektu batzuk ere Mafiak ordainduta-koak direla dio abokatuak.

Pergolizzi ekintzaileak erans-ten du eraikuntzan ere sartu du-tela dirua. Errepideak egiteko garaian, esaterako, hartxintxa-rrarekin nahasten dituzte hon-dakin toxikoak, eta hori herrial-dearen iparraldeko bideetan zein hegoaldekoetan gertatzen ari omen da.

Legambientek egin dituen kalkuluaren arabera, nekazaritza eremuetan eta beste leku ezego-ki batzuetan legez kontra hon-dakin toxikoak isurita sekulako dirutza irabazten du Camorrak: 26.000 milioi dolar urtean.

Egoera horren alde ilunaren faktura herritarrek ordaintzen dute, ordea. BBC kate britainia-rrak egindako txosten baten arabera, Campaniako gai toxiko-en isurketak badu loturarik minbiziarekin eta sortzetiko malformazioekin: hoge urteko

Campaniako gai toxikoen isurketak badu loturarik minbiziarekin eta sortzetiko malformazioekin: hoge urteko epean, eskualdeko gizonek dituzten tumore kopuruak %47ko hazkundera izan du, eta %40koa emakumeen kasuan.

GAUR8

epean, eskualdeko gizonek di-tuzten tumore kopuruak %47ko hazkundera izan du, eta %40koa emakumeen kasuan.

Campaniako milaka herritar kalera protesta egitera irten izan dira urteotan. Minbiziaren eraginez hildako umeen erretra-tuak eramaten dituzte manifest-tari batzuek, eskualdea garbi-tzea beharrezkoa, premiazkoa, dela nabarmentzeko.

Antonio Giordano Minbizia Ikertzeko Sbarro Institutuko zu-zendariak IPS agentziari orain aste batzuk esan zionez, egoera horren erantzukizuna agintariei dagokie: «Agintean dauden per-tsonena da errua, zer gertatzen ari zen jakin arren, 30 edo 40 urtetan ezer egin ez zutelako».

Sabina Ladada arkitektoak GARA egunkariari 2008an esan zionez, ez da baztertu behar hondakin nuklearrak ere isuri izana Campanian.

Enpresei merkeago ateratzen zitzaien talde mafiosoek hondakinak «ezabatzeagatik» ordaintzea, hondakin horiek behar den moduan tratatzea baino

Errepideak egiteko garaian, hartxintxarrarekin nahasten dituzte hondakin toxikoak, eta hori herrialdearen iparraldeko bideetan zein hegoaldekoetan gertatzen ari da

Euskaldunon Mekak

Unai Belaustegi

S ekula ez naiz uni-bertsitate-ko irakas-le hartaz ahaztuko. Zientziaren historia ematen zi-gun, baina zientziarekin batera, errepaso filosofiko ederrak uz-ten zituen airean, etxera joan eta bakoitzak bere buruari egu-rra eman ziezaion. Irakasle hark, urria iristen zenean –eta urtean zehar ere bai, noizbehinka–, beti botatzen zigun: «Joango al zare-te Durangoko Azokara?». Ba-tzuek baietz eta besteek ezetz. «Durangora nahitaez joan behar dugu! Euskaldunon Meka da. Baina, ez bizitzan behin joateko, baizik eta urtean behin joan eta zerbait erosteko. Gure euskal-duntasunaren froga da hori».

Arrazoi apur bat badu, Duran-go, zentzu askotan, Mekarekin konpara baitaiteke. Baina ez ze-bilen erabat zuzen, izan ere, eus-kaldunok, Durangoz gain, biga-rren Meka bat ere badugu: Hernani. Zeinek ez du koadrilan autobusa antolatu, Hernaniko sagardotegi batean kanpoak eta barruak busti eta, alde zaharre-an erdi galduta ibili ostean, etxe-rako bidea hartu? Ia nahitaezko bihurtu da Hernanira joatea txotx garaian. Guk, aurreko la-runbatean egin genuen aspaldi-ko partez, eta tira, ongi pasatu genuen. Bakailaoa jan, txuleta ederrarekin auskan ibili, burua-rekin pare bat intxaur apurtu eta sagardotan igeri egin... Aur-tengo penitentzia egina! Hori bai, entzunda daukat hernania-rrek ez dituztela gainontzeko euskaldunon ohitura horiek oso gustuko. Eta ulergarria iruditzen zait, ez baita lasaigarria izango astea joan eta astea etorri kope-tan intxaur marka duen mozko-rra beren kaleetan gora eta behe-ra ikustea. Nigatik lasai egon daitezela, datorren urtera arte ez bainaiz handik itzuliko! •

SEI BEGIRADA PALESTINATIK

Miren Amuriza

Palestina bisitatu ondoren, egileak honako artikulua idatzi du. «Ondorengo ez da kazetari baten erreportajea, ezta abenturazko bidaia baten kronika ere, palestinarren begiradetan irakurritakoaren kontakizuna baizik; keinuz jasotakoa hitzetara ekarria», esplikatu du.

Orain aste batzuk, iragan otsailean, Palestinan izan ginen euskal kulturegintzan dihardugun zenbait kide eta kazetari bi Biladi eta Bakea eta Duintasuna elkarteek antolatutako bidaia batean. Gazak eta Zisjordaniak osatzen dituzte egun lurralde palestinarrak. Lehena erabat blokeatuta dauka Israel eta bigarrena hiru gunetan banaturik dago: A-n Palestinar Aginte Nazionalak (PAN) du agintea; B-n kontrol zibila palestinarrena da eta militarra Israelekin partekatzen dute; C gunean, aldiz, okupatzaileenak dira botere zibila eta militarra.

Egoerak erabat gainditu zituen gure irudimenaren eta arrazoimenaren mugak: amesgaitz bat bizi izanaren irudipenaz itzuli ginen, baina berriz etxean esnatu eta egunak pasa ahala, errealitatea are gogorragoa dela ohartzen ari gara. «Israelgo Armadak gazte palestinar bat hil du Zisjordanian» zioen aurreko astelehen ba-

tean GARA egunkariak berak. Ondorengo ez da kazetari baten erreportajea, ezta abenturazko bidaia baten kronika ere. Palestinarren begiradetan irakurritakoaren kontakizuna da; keinuz jasotakoa hitzetara ekarria.

1 • Berriz hasi behar

Palestinaren eta Israelen arteko gatazka-
ren erdigunean dago Jerusalem, musulman zein juduen (eta kristauen) lur santua izanik, beren hiriburutzat baitaukate biek ala biek. 1967ko Sei Eguneko Gerraren ondoren, Israelen palestinarrena zen Jerusalem ekialdea okupatu zuen eta egun hormigoizko murrak bereizten dituen mendebaldetik. Bihotza erdibiturik duen gorputzak nekez egingo du aurrera.

Ekialdeko auzuneetan gero eta bizilagun gehiago dago, baina palestinarrentzat ia ezinezkoa da etxeak egiteko baimenak lortzea, beraz legez kanpo eraikitzen dituzte beren bizilekuak. Baina usterik gutxienean, han agertzen dira militar israeldarrak bulldozer ikaragarrien gainean. Burrumbada sumatu orduko gerturatzeko dira auzotarrak asaldatuak; borrokarako marjina txikia dago, ordea, harri koskor bat duen eskuaren eta metrailetari eusten dion eskuaren artean. Bata bestearen atzetik eraisten dituzte etxeak dominoko piezatxoak bailiran. Soldaduek atzean utzitako hauts hodei eta oihuen artean saiatzen dira orduan bizilagunak hondakinen artetik zerbait berreskuratzen: iragan txatalak, lan-tresnaren bat, esperantza hondarrak... Kale gorrian geratu eta berriz hutsetik hasi behar. «Betazalak altxatzeko baino nekatuago eta minduago nago» pentsatu du, baina berriz hasiko da.

2 • Gerra aspaldi bukatu zen

Aldirietako tiroen oihartzunak erdialde-
ra iristerako difuminatzen dira haizetan. Jerusalemeko alde zaharrak lau auzo ditu (musulmana, armeniarra, kristaua eta judua), baita erlijio bakoitzeko tenplu ikusgarriak ere. Antzinako elkarbizitzari eutsi izan baliote, kultur aniztasunaren eredu nagusietako bat izango zen agian, baina mapen puzzleak gutxi batzuen esku egon izan dira beti eta piezak horizontal ki barik, indar bertikalen arabera kokatu izan dituzte. Hamaika herri daude harrezkero munduan, elkarren ondoan egon arren enkajatu ezinik.



1

Argazkiak: Jose Pablo ARRIAGA



Kalearen bestaldean sinagoga handi bat dago, jatorri ezberdineko ehunka judu sartu-irtenean. Liburutegi handi bat lirudike tenpluak, otoitzerako eta irakurketarako aretoz eta literatura edo matematikako irakasle itxurako gizonez betea. Hala lirudike (eta ondorengo ez da metafora bat) bizar artean kamuflaturiko begirada fanatiko hauen jabeek liburuen azpian armak ostenduko ez balituzte. «Musulman bakar bat ere ez da geratuko» dio, «bat bera ere ez».

4 • Ez iezadazu begiratu, arren

Palestinako egunerokotasun nahasiaren barruan, parentesi bat da Ramallah, lehen begiratuan okupatzaileen presentzia ez baita hain nabaria. Bertan daude Mukata (PAN-ren egoitza nagusia) eta herri mugimendua osatzen duten hainbat elkarte (BDS kanpaina, preso politikoak babesteko taldeak...). Emakume ugari dabil-tza kaleetan; zapi koloretsuz apainduta batzuk, beltzez estalita besteak, baina zapalkuntza bikoitza jasaten guztiak. Erresistentziaren zutabe izan dira beti emakume palestinarrek; Intifadetan parte hartuz, euren artean antolatuz, eta, batez ere, familia asko aurrera aterata. Eta, hala ere, begirada makurtu behar; ama, alaba, emazte izateaz lotsatu behar. «Ez iezadazu begiratu, arren!» esanez.

Bada Palestinan parekoari goitik behera begiratzen dion emakumerik ere, baina ezin izan genien argazkirik atera: militar-rak. Neska gazte eta militarrek, rimmela



Hainbat sarrera dituen harresiak ingur- ratzen du alde zaharra eta Lehoien Atea izenekoa da turisten ohiko jomuga. «Ate- ra argazki bat» diotso gaztelaniaz emaz- teak gizonari, «Atea ikusi dadila ondo!». Begirada tinko eta erlaxatua du; on egin dio oporraldiak. Azokan erositako souve- nirrak banatuz, Jerusalemera joateko go- mendatuko die lagunei: «Ondo jaten da, denda eleganteak daude, jende kurio- soa...». Bakanen batek galdetuko dio agian: «Ez al zenuen beldurrik izan?». Eta berak: «Bai zera! Hiri normal-normal bat da. Gerra aspaldi bukatu zen».

3 • Bat bera ere ez

Baina bakerik ez dago. Israelek ez dauka bakerik palestinar guztiak banan-bana euren etxe eta lurretatik kanporatu arte. Apartheidaren adibide esanguratsuene- takoa da Zisjordania hegoaldeko Hebron; 1997az geroztik H1 (palestinarrarena) eta H2 (Israelen kolonia) eremuetan banatua. Kolonoen asentamenduak hiriaren erdi- gunea izan zena hartzen du eta palesti- narrek debekatuta dute sarbidea. Bertan dago Shuhada kale nagusia, ekaitzaren osteko barealdian harrapatua: dendak itxita, espaloiak huts-hutsik, lantzean militarren jeep bat bidean eta inozen- tziak ematen duen ausardiaz, leihotatik bisitarioi keinu egiten diguten bakarrak: haurrak.

Kale gorrian geratu eta berriz hutsetik hasi behar. «Betazalak altxatzeko baino nekatuago eta minduago nago» pentsatu du, baina berriz hasiko da.



ondo emanda eta arma eskuan. Errazagoa zen etsaia gorrotatzea gizonezko helduaren irudiarekin lotzen genuenean.

5 • Palestina begietan

Hiriguneetako zalapartatik urrun, isiltasuna da nagusi Palestinako ekialdean dagoen Jordan haraneko desertuan. Hori-zontean bat egiten dutenean, elkarren koloreak biziagotzen dituzte lur gorri eta zeru urdinak. Errealitatea, ordea, ez da inoiz postaletan kabitzen: azken hilabeteotan, hainbat kanpamendu altxatu dituzte palestinarrak Jordaneko basamortuan beraienak diren eremuak berreskuratu asmoz, baina militar israeldarrek banan-banan eraitsi dituzte.

Irrintzi bat entzun da dunaren tontorrean eta inguruko herrixkaren bateko beduinoak agertu dira. Bizpahiru mutiko gerturatu zaizkigu korrika. Batek burua bueltatu eta atzera begiratzearekin batera, denbora gelditu da. Basamortua bezain begirada sarkorra eta zabala du, aldi berean hain mugagabe eta hain mugatu. Ilaran hasi dira haren begi marroietan islatzen checkpoint-ak, gameluak, suge erraldoi baten formako hormatzarra, dunak, istiluak... Palestina du begietan.

6 • Borroka bai, jolasa ere bai

Basamortuko haize eta irrintziek ez daukate lekurik Balatako errefuxiatuen kanpamenduan (Nablusen iparraldean), bizi-



Irrintzi bat entzun da dunaren tontorrean eta inguruko herrixkaren bateko beduinoak agertu dira. Bizpahiru mutiko gerturatu zaizkigu korrika.

lagun bat ozta-ozta kabitzen den kalexka estuetan eguzki izpirik ere apenas sartzen baita. Zisjordaniako kanpamendurik handiena da eta Jaffatik etorritako errefuxiatuak (5.000 lagunentzako lekuan, 28.000) bizi dira bertan 1952tik. Okupazioaren ondoren behin-behineko neurri bezala sortuak, amaibako itomen bihurtu da eta, egun, milaka palestinarrak daude beren etxeetako giltzak gordeta sorterrira noiz itzuliko zain.

Koloreak koloreago dira zementuzko hormen artean, irribarreak irribarreago. Ramallahn argi esan zigun Omar Barghouti BDS-ko eragileak Israelen aurkako boikotaz mintzo zela: «*We are not here to have fun, we are here to win!*» (ez gara hemen ondo pasatzeko, irabazteko baizik). Arrazoia. Baina bien bitartean, Palestinako haurrak haur izateko eskubidea galtzen ari dira, eta bestelakoa diote euren begiradek: «Borroka bai, baina jolasa ere bai!».



{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Krimea, hain ezberdin... eta orain hain berdin?

Aurtengoa olatu independentista batek Europa zehartuko duen urtea dela sarri entzun da. Eta dezente hitz egin da Euskal Herriak olatuaren txanpa nola, zein jokaldi eginez aprobetxatu zezakeen. Eskoziak erreferenduma egingo du, Kataluniak kontsulta deitua du, Flandriako independentistek Belgikako hauteskunde legeak irabazi eta olatua are zabalduko dela... bai, hain ezberdin eta orain, aurten, hain berdin diren herriok badute beren historiarekin hitzordua. Asko hitz egin da, eta egin, ari da xorro-xorro lan polit askoa egiten. Gure Esku Dago herritarren dinamika hartzen doan indarra horren erakusle da.

Inork gutxi espero zezakeen, baina, olatuaren gainera Krimea batuko zela. Eta euskal jendea ari da hara begira, jendearen elkarrizketetan dago, analogiak eta ezberdintasunak azpimarratu dira, Putinzale koadrila ederra azalera-tu da Euskal Herrian, horrek beste asko asaldatu dituen bezala. Krimea, jakina, beste kontu bat da. Beste historia bat, beste kultura bat, beste errealitate bat; armak eskutan okupatua izan da, eta bai, oso bestelakoa da. Hori esanda, baina, letra arras ezberdina izanagatik ere, errima bertsuak aurki daitezkeela ezin da ukatu. Erreferenduma egin da, herritarrek hitz egin dute, mapak eta banderak aldatu dira... Eta, nahi edo ez, gonbidatua izan ala gabe, Krimea eztabaidaren zurrumbilora batu da. Nazioarteko gailur eta abarretan, munduko berri agentzien teletipoetan, han-hemenka egin diren milaka iritzi komentarioetan entzun dira Katalunia, Eskoziak, Euskal Herria eta Krimearen arteko loturak eta konparazioak. Errusiako Kanpoko ministroak Krimeaz hitz egiterakoan Euskal Herria gogora ekartzea, adibidez, bada zerbait.

Zaila da iritzi bat, bakarra eta biribil-biribila ematea Krimean gertaturikoaz. Eta gerta liteke, gerta litekeenez, Euskal Herriaz urrunetik egiten diren komentario eta iritzi sortek gutxitan asmatzen duten bezala, sarritan abertzale-tasuna eta nazionalismo patrioteroko berdintzen dituzten bezala, edo gatazka politikoa antiterrorismoaren antiojoe-tatik begiratuta gatazka moral bat balitz bezala karikaturi-zatzen duten bezala, hemendik ere igual-igual egitea Krimearekin, akats berbera errepikatzea. Agian iritzi

inteligenteena, iritzi propioa izanda ere, iritzirik ez ematea da. Ez erortzea, beste hamarkada batzuetan egin zen bezala, sinpatien zepoan. Hau da, garai batean Kalaxnikov fusila eskutan zuen edonork, izan Ameriketako oihanetan ala Asiako basamortuetan, ia-ia *per se*, gure sinpatia merezi zuela uste zen bezala, orain erreferendum bat –arma bidez inposaturiko atmosfera batean– egiteagatik eta aukera batek emaitza ikusgarri batzuk eskuratzeagatik, horregatik gure aukera kuttun egitea eta gure buruak politikoki hura defendatzera behartzea.

Badira, bai, Krimea Errusia dela eta Errusiak ukabil eta burdinazko agente zorrotz bat ezinbesteko duela pentsatzen dutenak. Badira ere Krimea errusiar inperialismoaren biktima dela eta han gertatu den anexo lotsagarri bat dela uste eta horri sinpatia adierazteak autodeterminazioaren aldeko kausari min itzela egiten diola uste dutenak. Egia, ohi bezala, hortxe nonbait egongo da, argitzal eta ñabarduretan lekututa, bietarik poxi bat hartuta. Gezurretan oinarrituz Irak txikitu eta milioi bat jende hil zutenek errusiarrek Krimean egin dutena kritikatzetik baduten eztabaida daiteke. Neofaxistak nola jarri dituzten Kieven inork bozkatu gabe autoproklamatu duten gobernu berrian, gerra hotzaren beroak eta gerra ekonomiko berri baten hotsak, asko dago pil-pilean, den-dena oso korapilatua eta, jakina, eztabaida libre!

Gure txikian, gure herrian sortzen ez ditugun baldintza eta aktiboak ez dizkigula inork kanpotik opari emango jakitun, begiak zabal eta dena hankaz gora jarri dezaketen ezustekoen zain beti, ez litzateke ona Krimearen inguruan «alde edo kontra» hil ala biziko erabaki politiko bat eta bakarra izaten tematzea. Putinen aldeko ala kontrako, Europazale ala antiinperialista yanki, ezkerreko ala ezker muturreko, pose eta folklore oro alboratuz, guk gurean segitu behar dugu. Gure esku dagoena geure egiten, ez inoren kopiatu egiten, ezta inori lezioa eman asmoz ere.

Krimearen inguruan iritzi bat eta erabaki politiko bakarra nahi edo iradokitzen dutenen kontra, guk, euskaldunok, munduko beste herritar asko bezala zalantza-dantza betean gaudenok, ziurtasun bat, eta bat besterik baino ez, daukagulako: euskara bakarrik dugula bat, batua eta bakarra munduan. •

Agian iritzi inteligenteena, iritzi propioa izanda ere, iritzirik ez ematea da. Ez erortzea, beste hamarkada batzuetan egin zen bezala, sinpatien zepoan

KULTURA /

amagoia.mujika@gaur8.info

Juan Frantzisko Petriarena «Xenpelar» oso gazte hil zen, 34 urte zituela. Bizitza laburrean ibili zuen bertso bide aberatsak askorako eman du. Baina, nolakoa zen? Ayalderen Xenpelar margoa betiko geratuko da euskal ikonografian. Lan horretan ageri dena ez da Xenpelar, Antonio Lekuona «Matxio» oiartzuarra da.

Gazterik hil zen Juan Frantzisko Petriarena «Xenpelar» (1835-1869), 34 urte zituela eramán baitzuen baztangak. Garai haietan arrunta zen gaitxotasunak eta izurriteak hedatzea. Orduan ez zegoen oraingo garbitasun, sendabide eta txertorik eta jende asko hiltzen zen gaitz kutsakorren ondorioz. Horietako bat etxean sartzen zenean, ez omen zegoen ezer egiterik. Horrelakoetan etxeak ixten zituzten eta barruan zeudenek ezin zuten bertatik atera, gaitza gehiago zabal ez zedin. Kontatzen dute barrukoen eta kanpokoen arteko komunikazioa leihotik behera zintzilikatzen zuten saskitxo baten bidez egiten zutela.

1869an baztanga zabaldu zen Errenterian eta Xenpelarren etxeraino iritsi zen. Emaztea eramán zuen lehenbizi. 1869ko urriaren 25ean hil zen Maria Josefa, 35 urte bete berrian. Bertsolaria ez zen gaitzaz libratu. Bere azken egunetan bere arreba Maria Luisak zaindu zuen. Bere lau urteko alaba Joxepa Antoni senarrarekin utzi eta anaia eta haren hiru alabak zaintzera joan zen Maria Luisa. Erabaki potoloa izan zen Maria Luisarena, bazekielako etxe hartara joanda bere bizia eta sabelean zeraman haurrena arrisku bizian jarriko zituela. Anaia eta ilobatxoak zaintzea



Antonio Lekuona «Matxio» eredu hartuta pintatu zuen Xenpelar Antonio Valverde margolariak 1969. urtean. Ikor KOTX

AYALDEREN XENPELAR

Antonio Lekuona «Matxio», Xenpelarri aurpegia jarri dion oiartzuarra

lehenetsi zuen, ordea. Xenpelar 1869ko abenduaren 8an hil zen, 35 urte bete gabe, eta egun berean jaio zen Daniela, Maria Luisaren alabatxoa. Egun gutxi egin zituzten bizirik ama-alabek. Daniela abenduaren 17an hil zen, eta Maria Luisa, 18an, biak baztangaz. Harrigarria da baina Xenpelarren hiru alabatxoak bizirik atera ziren izurrite hartatik.

Bere bizitza laburrean egin zuen bideak arrasto handia utzi du gerora. Baserrian sortua bazen ere, fabrikako langile izan zen eta esaten da XIX. mendeko bertsolari fabrika-langile kaltetartua izan zela. Bi munduren arteko zubia zela, alegia.

Horrez gain, bere garaiko bertsolarien lekuko izateko aukera izan zuen. Plaza eta sagardotegi giroak gertutik ezagutu zituen; lehia, desafioa, herrietako jaiak eta halakoak. Horrez gain, doinuak sortzeko gaitasuna zuen. Berak sorturiko doinu asko garaiotara iritsi dira bizi-bizi.


Ahozkoan ez ezik, idatzizkoan ere dotore aritu zen. Ez zekien idazten eta ez da jakin zeini idatzarazten zizkion, baina bertso paperetan bide oparoa egin zuen. Gizarte gaien eta politika gaien kronista ere bazen, bere bertsoek balio baitute garaioko kontuen berri izateko.

Bertsoak egiteko modu neurtua eta soila zuen, baina indartsua. «Bertso sendoak eta akats gabeak», Zabalaren esanetan. Hizkera ere bizia, irudiz eta metaforaz betea.

NOLAKOA ZEN XENPELAR?

Oroimen ona, bat-batean asmatzeko gaitasuna, bizitasuna eta umorea berezko zituen. Bere bizitza laburrean ibilitako bertso bidea aditu askok aztertu dute gerora miresmenez.

Baina, nolakoa zen Xenpelar? Elixabete Perez Gazteluk «Bidegileak» bilduman kontatzen duenez, «iritsi zaizkigun testigantzen arabera, txikia eta meharra zen, begi bizi eta bihurri samarrak zituen eta aurpegi kolore 'berdexka'; ilun samarra. Besteek egindako bertsoen bitartez ere asma dezakegu oso handia ez zela izango. Olloki



Alboko irudian Antonio Valverde «Ayalde»ren «Xenpelar» izeneko margolana. Modelo lanak egin zituenean Matxiok 37 urte zeuzkan. Orain, 82 dauzka.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

zaharrak Xenpelarri kantatutako bertso batean txikia zela dio: 'Honoko txiki honek/ as-tinduko gaitik'. Musarrok ere Xenpelarren hezurrez honakoa botatzen du: 'Hezur igarrak hautsitzen dizkik'.

Izan ere, bere lanaren berri iritsi da egunotaraino. Bere bertsoak, doinuak eta pasadizozak ezagutzeko aukera izan du-

gu. Baina, bere benetako irudirik ez dago. Gure ikonografian betiko geldituko da Antonio Valverde «Ayalde»k marraztutako erretratua. Hori da guregana iritsi den Xenpelar.

Ayaldek 1969. urtean margotu zuen erretratu hori Antonio Lekuona «Matxio» oiartzuarra eredu hartuta. Orduan 37 urte zituen Matxiok. Orain, 82 urte

Antonio Valverde «Ayalde» margolariak 1969. urtean pintatu zuen «Xenpelar» lana. Oiartzungo Antonio Lekuona «Matxio» izan zen modelo lanak egin zituen

Xenpelarren irudirik ez zegoenez, beste bertsolariek emandako datu gutxietatik abiatuta irudikatu zuen Ayalde bere buruan

ditu eta begiak bustitzen zaizkio ordukoari buruz galdetu bezain pronto. Urteak joan dira, baina detaileak ondo bizirik dauzka oroimenean.

«Igande goizez bederatzieta-ko mezatara joan ginen emaztea eta biok. Ayalde eta bere emaztea ondoko bankuan jarri zitzaizkigun. Bistaz ezagutzen nuen. Begira-begira egon zitzaidan meza guztian eta urduri jarri ninduen. 'Marikoia' zela pentsatu nuen une batean, eta gustuko ninduela. Bere begiratzeko modua arraroa iruditzen zitzaidan eta. Meza bukatu eta azkar asko atera ginen elizatik emaztea eta biok, eta Ayalde gure atzetik 'hau da Xenpelar, hau da nire Xenpelar' esanez oihuka. Ez nuen ezer ulertzen. Harrituta geratu nintzen».

AYALDEK BERE BURUAN IRUDIKATUA

Antonio Valverde «Ayalde»k orduko Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian bankutik enkargua jaso zuen egutegi baterako erretratuak egiteko. Gipuzkoako pertsonaia ospetsu zenbaiten erretratuak egin behar zituen, tartean Xenpelarren. Lola Valverde, Ayalde zenaren alabak, kontatu duenez, «gure aita oso ondo dokumentatzen zen erretratu bat egin aurretik. Artxiboetan arakatzten ibiltzen zen informazio bila. Xenpelarren irudirik batere ez zegoenez, beste bertsolariek egindako deskribapenak eta pistak biltzen jardun zuen eta pentsatzekoa da bere buruan era jakinean irudikatu zuela Xenpelar». Lola haurra zen bere aitak Xenpelar margotu zuenean. Gogoan du nola etortzen zen arratsaldero beren etxera Matxio. «Gu umeak ginen, baina oso gizon guapoa zela oroitzen dut».

Ayalde Oiartzunen bizi zen eta inguruan bilatzen saiatzen zen bere erretratuatarako ereduak. Lola Valverderen hitzetan, ohikoa zuen aitak lan egiteko modu hori, «esaterako, Juan Inazio Iztueta euskal dantzariaren erretratua egiteko Migel Mari Lasa Oiartzungo txirrindulari famatua hartu zuen eredu».

«Igande goizez bederatzietako mezatara joan ginen emaztea eta biok. Ayalde eta bere emaztea ondoan jarri zitzaizkigun. Begira-begira egon zitzaidan meza guztian»

«Meza bukatu eta azkar asko atera ginen elizatik emaztea eta biok, eta Ayalde gure atzetik ‘hau da Xenpelar, hau da nire Xenpelar’ esanez oihuka»

Hartara, Xenpelarren irudia buruan bueltaka zebilkiola, Matxio ikusi orduko ikusi zuen Xenpelar. «Ayalde Xenpelarren bila zebilen. Beste lau oiartzuarrerekin probatuta zegoen; saiatu zen haiek marrazten, baina ez omen zen gustura geratu. Azaldu zidan nola zebilen Xenpelar marraztu nahian eta bere etxera joatekotan geratu ginen. Emaztea eta biok joan ginen hurrengo egunean bertan», gogoratu du Matxiok.

Berak Errenteriako paper fabrikari lan egiten zuen eta hala xe azaldu zion Ayalderi. «Goizeko seiatatik ordubietara lan egiten nuela esan nion, eta arratsaldetan beste lau ordu estra. Berak Xenpelar marraztu behar zuela eta nire laguntza behar zuela esan zidan. Arratsaldetan lanean ematen nituen lau ordu estrak lantokian beharrean bere etxean emateko, eta berak ordainduko zizkidala ordu horiek lantokian ordaintzen zizkidaten prezio berdinean. Hamasei egunez jarraian joan nintzen Ayalderen etxera. Eseri eta han egoten nintzen, nahiko lasai. Jatekoa ematen zidan eta zato ardoa ondoan jartzen zidan. Eta bera isil-isilik aritzen zen lanean, musika suabe jarrita. Batzuetan, luze egoten zen niri begira eta, *ttak*, zer edo zer margotzen zuen, eta berriz begira». Matxio ondo gogoratzen da hain berezi egin zitzaizkion egun haiekin. Oso desberdina zen arratsaldea paper fabrikari lanean edo Ayalderen etxean eserita eta isilik ematea. «Orduan gaztea nintzen eta gehiago kostatzen zitzaidan geldirik egotea», gogoratu du umorez.

«ZER LAN KLASE DA HORI?»

«Lau bat egun zeramanean begiratua eman nion koadroari eta nirekiko pentsatu nuen, ‘hau bukatzen ari duk’. Bosgarren egunean ja azken eguna izango zelakoan joan nintzen. Ayaldek bere emazteari galdetzen zion beti bere lanari buruz. Etorri zen emaztea, galdetu zion eta hari, nonbait, asko gustatu ez. Bat-batean, bere buarekin haserre, Ayaldek pa-

pera hartu eta puskatu egin zuen. Eta berriz hasi zen hasieratik. ‘Honek ez dik bukatuko!’, pentsatu nuen egun horretan», kontatu du barrez.

Ayaldek Antonio Lekuona ikusi orduko esan zuen: «Hau da Xenpelar». «Argala nintzen oso eta Xenpelar ere hala omen zen. Ayalde denbora luzean aritu omen zen Xenpelar nolakoa ote zen pentsatzen eta ni ikusi orduko garbi zuela esan zidan. Ez dakit, niretzat ere bitxia izan zen. Gogoan dut paper fabrikari bulegoan lan egiten zuen lankideari nola kontatu nion Ayaldek proposatu zidana. Ea zer iruditzen zitzaion galdetu nion eta ‘Xenpelar eta kristoak! Zer lan klase da hori?’, esan zidan hasieran. Baina azkenean joateko baimena eman zidaten lantokian eta han joan nintzen, oso ondo zer egin behar nuen

ez nekiela». Bulegoko lankide horrek gerora hala esan omen zion Matxiori: «Gu denak hil egingo gaituk, baina hire irudia betiko geratuko duk».

Paper fabrikako langilearen eta margolariaren lanak oso desberdinak dira. Matxiorentzat, Ayalderena lan gogorra goa zen, «pazientzia handia» eskatzen zuena. «Lauzpabost metrora jartzen zen, oihalaren aurrean. Nigana gerturatzen zen, begira-begira egoten zen, isilik, kontzentratuta, oihalera bueltatu eta *ttak* ukitzen zuen pintzelaren puntarekin. Eta handik tarte batera, *ttak*, berriro. Harrigarria egiten zitzaidan lan egiteko modu hura». Eta halako batean bukatu zuen Xenpelar margoa. «Antonioren igual-iguala, argazkia ematen zuen», esan du Matxioren emazteak ondotik.

MATXIO XENPELARREN JAIOTETXEKO SUTONDOAN ESERI ZUEN BASERRIK

Jose Luis Erkizia «Baserri», arraun munduan oso ezaguna den errenteriarra, eta bere familia bizi dira gaur egun Xenpelar baserrian. Badira hogeitau urte baino gehiago Senperelarre erosi eta berritzen hasi zirela. Baserri ederra da egun, dotorea hezur eta mami. Kanpoan irakur daiteke “Xenpelar” eta barruan igarri daiteke haren presentzia bizirik mantentzeko ahalegina. «Nik uste dut margo horren atzean Udalak Xenpelarren heriotzaren 100. urteurrena gogoratzeko egindako lehiaketa bat dagoela. Inguruko margolariei eskatu zien Xenpelarren margo bat egiteko eta iruditzen zait lehiaketa horretan parte hartu zuela Ayaldek», hasi da kontatzen Baserri. Dezente ikertu du Xenpelarren inguruan. Mahaiaren gainera atera ditu liburuak, jaiotze agiriak, errolda agiriak, egunkarietako berriak... Ez dira Xenpelar baserrian topatutako altxorrak —«hau erosi genuenean hemen ez zegoen ezer»— gerora Erkiziak bildutakoak baizik.

Baserria erosi eta Xenpelarren irudi bakar horrekin atzera eta aurrera zebilela,

bere emazteak esan zion Ayalderen margoan agertzen zena Matxio zela, oiartzuarra. «Emaztea oiartzuarra da eta Matxio bere etxetik oso gertu bizi zela esan zidan. Eta, nik, ‘Nola? Gizon hori bizi dela?’ Harrituta geratu nintzen eta elkarrizketa bat egin behar niola erabaki nuen». Matxio estropada zalea da eta Baserrirekin arrauna izan ohi zuen hizketagai nagusia hasieran. «Donostiako estropadetan urtero egiten genuen topo. Bi bat urtetan galdetu zidan, ‘Baserri, gaur zeinek irabaziko du?’. Nik esandakoari kasu egin, apustua jokatu eta sosa batzuk irabazi zituen. Eta zorretan bezala zegoen beti nirekin, beti gerturatzen zitzaidan kasu egitera eta arraunaz hitz egitera. Nik, ordea, ez nuen arraunaz hitz egin nahi, nik Xenpelarren margolan horri buruz hitz egin nahi nuen», kontatu du Baserrik. «Egun batean hizketan ari ginela esan nion, ‘ni orain arrauna utzi eta Xenpelar baserria konpontzen ari naiz’, ea lortzen nuen zirikatu eta gai horri buruz hitz egitea. Eta berak, umil-umil, ‘Ba al dakizu Ayalderen margolaneko Xenpelar hori ni



**Paper fabrikan goizez lan egiten zuen eta
arratsaldero lau ordu estra egiten zituen.
Ayaldek ordu estra horiek ordaindu zizkion
bere etxera etorri zen arratsaldeetan**

Ayaldek Oiartzungo bere etxean pintatu zuen Xenpelar lana, Matxio bizi den etxetik oso gertu. Ayalderen etxe kanpoaldetik, Matxiorenetik bezala, Aiako Harriak ikusten dira. Baina Ayaldek etxe barruan pintatu zuen lan hori, eta gero margotu zituen Matxioren atzealdean Aiako Harriak.

«ALTXATU ETA MARTXA»

1969. urtean Xenpelar hil zeneko 100. urteurrena gogoan hartuz hainbat ekitaldi antolatu zituen Oreretako herriak. Tarteetan, Xenpelarri omenaldi bat Onbide zineman. Bertan aurkeztu omen zuen Ayaldek margoa. «Aitaginarrebarekin joan nintzen. Aretoa lepo beteta zegoen. Ni ikusi orduko han hasi zen Ayalde ‘Xenpelar hemen dago’ esanez. Eta jende guztia niri begira. Ba al dakizu

**Hasieran lantegian arraro samarra iruditu
zitzaien kontua, baina baimena eman zioten.
«Gu denak hil egingo gaituk, baina hire
irudia betiko geratuko duk», esan zioten**

Beheko irudian, Jose Luis Erkizia «Baserri» eta atzealdean Xenpelar baserria. Duela hogeitau urte erosi zuen bertsolaria jaio zen baserria.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

zer egin nuen? Altxatu eta martxa, lotsa-lotsa eginda», kontatu du Matxiok.

Abentura berezi haren aurretik Matxiok bazuen Xenpelarren berri. «Bere bertsoak ikasten genituen eta bagenekien bertsolari bikaina izan zela. Gure osaba Manuel Lekuonak beti esaten zuen inoiz izandako bertsolari onena zela Xenpelar». Osaba Manueli poz handia ematen omen zion Xenpelarri aurpegia jarri ziona bere iloba Antonio izatea.

1970. urtean hil zen Antonio Valverde Ayalde, Xenpelar lana pintatu eta hilabete gutxira. Bere azkenetako lana izan zen, beraz, Matxio eredu hartuta pintatu zuen hura.

Gure ikonografian ondo txertatutako lana da Xenpelar izeneko. Bertsolaria eta Ayalde garaikideak ez baziren ere, jen-

de askok pentsatu izan du Xenpelar bera zela margolan eza-gunean agertzen den gizonezkoa. Eta Matxiok diskrezio handiz bizi du kontua, normaltasunetik eta naturaltasunetik.

Donostiako San Telmon dago originala. Pontikako elizan ere badago irudi hori. «Esan zidaten Pontikako elizan ere baze-goela Xenpelarren irudia eta han joan ginen egun batean hura ikustera. Elizan sartu eta emakume talde bat ikusi genuen, belauniko, errezatzen. ‘Horko horri ari al zarete? Ederriari ari zarete orduan!’, esan nien. Ez zuten askorik ulertu», kontatu du umoretsu Matxiok. Gizon bizia da oiartzuarra, horretan Xenpelarren antzekoa behar du. Oiartzunen jende askok deitzen omen dio Xenpelar. Izan ere, bera da Ayalderen Xenpelar, eta beste guztiena.



naizela?’. Eta ni, pozik, ‘horra iritsi nahi nuen, Matxio, horra’».

Eta hitzordua jarri zuten, Xenpelar baserrian. «2009ko abenduaren 8an, Xenpelar hil zeneko 140. urteurrenean, egin genuen hitzordua. Gure familia eta berea elkartu ginen bazkaltzera. Eta bazkaldu eta gero elkarrizketatxo bat egin nion eta bideoz grabatu genuen. Hori zen nire helburua, Matxioren kontaketa hori gordeta gera zedila», jarraitu du.

Handik hilabete pare batera, baserriaren bueltan lanean zebilela, Julian Albistur hurbildu zitzaion, Oreretako bertso eskolako kidea eta “Xenpelarri falta zaiona” ekimenaren bultzatzailea. «Bertsolari guztiek daukate eskulturaren bat edo bestelako errekonozimenduren bat, eta Xenpelarrek halakorik ez zuela eta, herritar talde bat horren alde lanean ari zela agertu zidan. Matxioren berri kontatu nion eta nik egindako grabaketa utzi nion. Handik hamabost bat egunera Elixabete Perez Gaztelu etorri zitzaidan, ‘Bidegileak’ bilduman Xenpelarri buruz ari zela eta. Eta hark ere ez zeukan Matxioren istorioaren berri. Egia esan azken urteotan Matxioren istorioaren berri ematen saiatu naiz han eta hemen, merezi baitu».

Izan ere, Matxioren berri Oiartzunen badute. Dagoeneko urte batzuk pilatuak dituzten oiartzuarrek badakite Xenpelarren margolan horretan ageri dena Matxio dela. Baina, hortik kanpo, ez da oso istorio ezaguna. «Pentsa, urte hasieran

Udalak Xenpelarren eskultura inauguratu zuenean bertso munduko jendea bertaratu zen ekitaldira eta haiek ere ez zeukaten Matxioren berri. Gogoan dut nola harritu ziren istorio hori entzundakoan Xabier Amuriza eta Iñaki Murua, esaterako».

Xenpelarri buruzko bitxikeria gehiago ere azaldu dizkigu Baserrik. Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso pianistak “Bi arreba” izeneko ikuskizuna sortu zuten duela bi bat urte, Chopinen eta Xenpelarren antzekotasunean oinarrituta. «Emanaldia ikustera joan eta beste datu bat eman nien. ‘Jerusalen de Oro’ abestia, 1967an Sei Eguneke Gerra deiturikoaren ereserki bihurtutako abestia, Xenpelarren abesti baten plagioa dela. Nomi Shemer konposatzaile eta letragile israeldarrak hil aurretik eskutitz batean aitortu zion lagun bati hain famatu egin den abesti horren oinarrian euskal sehaska kanta bat zegoela. Eta badirudi kanta hori Xalbadorren ‘Salbatoreko ermitan’ dela».

Pasioz hitz egiten du Baserrik Xenpelarri buruz eta pozik dago azken urteotan Matxioren berri ere jakin delako Oiartzun eta Orereta inguruan behinik behin. «Ea denon artean merezi duen tokian jartzen dugun Matxio. Izan ere, erabateko umiltasunetik bizi du berak kontua. Ez dut uste askotan esan duenik Xenpelar bera dela. Ingurukoei esango zien, baina ez beste inori».

Irudi eskubideak eta halakoak ez dituela aldarrikatu inoiz, alegia.



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BEGIAK ZABALDUTA ETA BEGIRADA JASAN EZINDA

Andina Pereira de Brito da indarkeria matxistak gure herrian utzi duen enegarren heriotza eta enegarren aldiz irten dira herritarrak emakumeen aurkako indarkeria behin betiko amai dadin amorruez eskatzera.

Mungiako Udaletxe plazan, 33 urteko emakumearen

senide eta lagunak elkartuta, gertatutakoa ulertu ezinik, Andinaren oroimena bihotz eta hitzetan hartuta, sentitzen duten gorrotoa hustu ezinda... Halakoetan zaila da justiziaz mintzatzeari, baina hura aldarrikatzen dute, ozen eta indarrez; jakin badakite arazoak sakonagoak diren sustraiak dituela eta eutsi behar zaiela ezinbestean, baina sentitzen duten samina nolabait arinduko du hark. Indarkeria basati honen aurrean begiak zabaltzeko beste erremediorik ez die utzi errealitateak ingurukoei eta hain da jasangaitza ikusi eta sentitu dutena, askok ezin dutela begirada jasan. maider.eizmendi@gaur8.info

ZOROEN ITSASONTZIA

Itsas gaineko Azart antzokiak Trintxerpen hartu du egoitza 2016. urtera bitartean

Ontzia urrutitik ikusten da. Kolore berde eta horiak nabarmen egiten du portuan. Kubiartara sartu bezain pronto antzematen zaio ez dela euskal portuetan aurki dezakegun ohiko arrantza ontzia.

Sutan galdaran erre eta itsasontzia berotzeko baliatzen dituzten egur zatiak ikus daitezke izkina batean, lehortzen. Eszenatoki txikia dago alboan. Udan erabiltzen dute, publikoa moilan jarritako harmailetan eserita dagoela. Neguan, berriz, ontziaren barruan eskaintzen dituzte emanaldiak, aterpean.

Bazkalosteko kafea hartzen harrapatu ditugu August Dirks kapitaina eta Bea Insa tripulaziokidea. Eguzki gozotan, kubiartan duten mahai handiaren bueltan.

Makina bat tramankulu ikus daitezke han-hemen, urte luzetako ibilien lekuko. Izan ere, 25 urte daramatza Europako itsas bazterretan joan-etorrian Azart ontziak. Bere gidari, August Dirks holandarra. 36 urte zituen ontzia erosi zuenean. Bitxia da, orduan ez baitzen ez marinel, ez aktore. Errusiar Filologia eta Literatura ikasketak egin, artista herbeheretarren eta errusiarren arteko elkartrukea sustatzen zuen agentzia zeukan.

Dena utzi eta itsasoratu egin zen. Europako iparraldeko kulturaren tradizio luzea duen Zoroen Itsasontziari omen egiten dio ontziak. Sebastian Brandtek 1494an "The Ship of Fools" liburua idatzi zuen eta Boschek izen bereko margoa egin zuen. Europa iparraldeko Inauterietan ere ohiko irudia da Zoroen Itsasontziarena.

Ipar Itsasoan XX. mende hasieran eraikitzen zen ohiko ontzia da Azart. 1916an eraikia, guztira 500 ontzi berdin egin ziren. «Dena burdinazkoa da, errematxeekin. Laurogei bat gelditzen dira orain. Denei motorra jarri zitzaienten eraiki eta 20 urtetara. 1915etik 1960ra, itsasoan ibili ziren», kontatu du Dirksek. Bizipen asko ditu itsasontziak, arrantzan aritu ondoren II. Mundu

 **KULTURA** / xole.aramendi@gaur8.info

Europa Iparraldean tradizio luzea duen Zoroen Itsasontziari egiten dio omen itsas gaineko antzokiak. Urte osoan eskaintzen ditu emanaldiak. Uda partean nabigatuz eta neguan portuan bertan. Pasaiaiko Trintxerpen du egoitza orain. 2016ra arte egongo da bertan, Donostiako Kultur Hiritartasuna hasi bitartean.

Gerran alemaniarrek konfiskatu eta ingelesen aurka erabili baitzuten.

2016an ospakizun handia izango dute. Batetik, Boschen heriotzaren 500. urteurrena izango da. Bestetik, 100 urte beteko ditu Azart ontziak. Eta hori gutxi balitz, antzerki konpainiak 25 urte egingo ditu. Hori guztia behar bezala ospatzeko proiektu berezia dute esku artean: Australiara doaz.

Bizpahiru urtez luzatuko den bidaia izango da. Ilusio handiz ari da prestakizunekin August Dirks. «Beste amets guztiak bete ditut, hauxe geratzen zait», aitortu du.

Betidaniko irrika izan du Dirksek nederlandar nabigatzaileen itsasbideak berriz egitea. «25 urtetan amestu nuen baina ez nuen dirurik. Orain arte Europan ibili gara –Errusia, Islandia, Israel...–, ez gara beste inora jo-


an. Orain Australiara goaz tripulazio berria osatuta», dio.

Boschen margolanean ontziak duen estetikari jarraiki itxura aldatuko diote itsasontziari. Horretarako Hendaiko ontziolara eramango dute datorren abuztuan. Ondorioz, aurtengo udan ez dute antzezlanik eskainiko.

Europa iparraldeko Inauterietan gupil gainean ateratzen da Zoroen Itsasontzia eta Azart ere horrelaxe ibiliko da behin Australiara iristean, han egingo duten festa berezian. Ondoren, berriz itsasoz jarraituko du bidea.

Gustura sentitzen dira Trintxerpen August Dirks eta Bea Insa. Dena den, bada iritsi bezain pronto ontziko kapitainak harri-duraz hartu zuen zerbait: uraren zikinkeria. «Eskandalua da, Europan oso toki gutxi ikusi ditut hain zikinak! Ezinezkoa da hemen igerian egitea...», dio.

Lantoki ez ezik, bizitoki ere badute ontzia. Neguan hiru dira tripulaziokideak: Dirks eta Insa-ekin batera Angel Dueñas bizi



da bertan. Udan familia handitu egiten da. Urtero aldatzen da. «Iaz Italiako hiru kide batu zitzaizkigun. Eszenografiak eta jantziek arduratzen ziren bi eta aktore bat», kontatu du Insa. «Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrera gonbidapena luzatu genuen. Interesgarria iruditu zitzaigun ikasle batek itsas antzokian aktore profesionalekin prozesua bizitzea. Bi ikasle etorri ziren», gaineratu du.

BARTZELONATIK ITSASO ZABALERA

Bea Insa ia hogeit hamar urte daramatza interpretazioari lotuta. Castellonen jaio zen. Antzerkia, musika eta dantza ikasi zituen. Horiei eskaini die bere bizitza. Antzerki irakaslea eta zuzendaria ere bada.

Ontzia ezagutu eta erabat lotu zuen. Duela zortzi urte izan zen. «Egun batzuetan eurekin nabigatzeko aukera eskaini zidaten. Uharte galdu batera ontzi antzokia iristea zer den bizi izan nuen eta lotu egin ninduen», dio.

Goian, August Dirks eta Bea Insa. Alboan, kapitaina bere lemarekin. Behean, ontziaren barrualdea. Bertan eskaintzen dituzte neguan emanaldiak.
Juan Carlos RUIZ / ARGAZKI PRESS



Bizimodua eta lanbidea Bartzelonan erabat errotuta zituen. Dena utzi eta ontziratu egin zen. Gauza bera egin zuten Bartzelonan bizi ziren beste bi aktorek eta musikari bikote batek.

Grezian izan zuten geltokia. Oroitzapen politak ditu. «Ehun-ka portu daude eta antzerkiaren inguruko antzinako tradizioa dute. Hiri handietan lan egitea oso bestelakoa da. Aukeratu duzun antzezlanak ez dela komertziala... Eskaintza hain da handia, zaila dela nabarmentzea. Aldiz, ontzi hau itsasoan distira egiten duen harribitxia bezalakoa da. Greziara iritsi eta bat-batean denak hartzen du zentzua! Ederra da ikusleak zu ikusteko irrikan egotea. Magia handia du», dio Insa.

Ondoren, Marseillara. 2013an kultur hiria izendatu zuten. Baina arazoak izan zituzten han porturatzeke. «Ez ziguten baimenik eman, sekulako dirutza eskatzen ziguten. Azkenean Port Saint Louisen egon ginen», dio.

Eta handik Pasaiara. Urte t'erdi daramate Trintxerpen. «Biz-pahiru urte egiten ditugu herri bakoitzean. Ordurako bertakoak ezagutu ditugu eta proiektuak landu ditugu», esan du.

Gurera iritsi aurretik Tesalonika (1996) eta Reykjavik (2000) kultur hiriak ezagutu zituzte. «Inguruan bagabiltza baliatu egiten dugu», azaldu du kapitainak.

BIZITZAREN ESKOLA

Bizitzaren eskola da ontzia Insa-rentzat. «Zenbat artista ezagutu ditut... Zenbatekin haserretu naiz, zenbatekin gozatu dut...», dio aktoreak. «Itsasoan hainbeste ekaitz –izan emozionalak, profesionalak edo naturak eragindakoak– igarotzen dituzu, lur-rreratzean dena oso erraza iruditzen zaizula. Horrek indar handia ematen dit. Itsasontziak berak segurtasun eza du, planak egun batetik bestera aldatzen direlako eta guk geuk horretara moldatu behar dugulako. Eta lurreko arazoak hobeto kudeatzeko gai zara», aitortu du.

Lan bisualak, ikusgarriak eskaintzen dira Azarten. «Arte komedia eta clown lantzen dugu eta musika asko erabiltzen dugu.



Ez hitz egiten saiatzen gara, baina keinuen antzerkia oso zaila da. Normalean ez dugu aurkitzen egingo duten aktore nahikorik. Hizkuntzari dagokionez, antze-lanetan bertako hizkuntza ere erabiltzen dugu, ahal dugun neurrian».

Aurtengo neguan eguraldi txarrak aterpea bilatu beharra ekarri du. Auzoan entseatzeko toki eskaini diete: San Pedroko antzokia eta Kontadores. «Udako ikuskizuna kubiartan entseatzen dugu normalean, baina eguraldi txarra zela eta ezinezkoa zen. Egoerara moldatuz ari gara beti. Denborarekin errutinak sortzen dituzu, baina hasieran zerotik sortu behar duzu», nabarmendu du. Horixe da konpainiako kide-entzat zailena.

ELKARLANA

Aktorearen esanetan proiektu honek daukan berezitasuna da kanpotik datozen artisten eta bertakoen arteko elkarlana sustatzen dela. «Horrek kolore handia ematen dio emaitzari. Kaosa handiagoa da agian. Izan ere, lanerako, batetik antzerki lengo-aiia eta bestetik komunikaziorako hizkuntza komuna aurkitu behar da».

Insak berak erabakitzen du zein lan taularatu. «Neguan lan garaikideak egiten ditugu, antzerkiaren alorrean gehiago ikertzen dugu. Baina udan publiko guztiari eskainitako eskaintza dugu. Edozeinek goza dezala antzerkiak; ez du zertan ulertu gure antzokira etortzeko. Artearen komedia ere horixe zen, herriko azoka zegoen plazan eskaintzen zuten antzezlanak. Proposamen desberdina da gurea, aire libreko antzerkia bezalakoa da», dio.

Iaz "Le Bourgeois gentilhomme" aukeratu zuen, Mikhaïl Bulgakov errusiarraren bertsoia. Oso emanaldi gutxi egin zituzten, ezin izan baitzuten nabigatu baimen kontuengatik. «Lege berri bat onartu zuten eta haren arabera ezin genuen nabigatu. Orain jakin dugu on- tziari ez diola eragiten legeak eta, ondorioz, nabiga genezake-ela». Burokrazia, horixe egiten zaie gogorra. Udalekin baino,



Dirks: «Orain arte Europan ibili gara. 2016an Australiara abiatuko gara bizpahiru urte iraungo dituen bidaian»

Insa: «Itsasoan hainbeste ekaitz igarotzen dituzu lurreratzean dena erraza iruditzen zaizula. Horrek indar handia ematen dit»

portu agintariekin izaten dira harremanak malkartsuenak. Halaxe dio Dirksek: «Lehorrean jasan ditut ekaitzik handienak, itsasoan baino latzagoak».

Neguan atera dute arantza. Larunbatero egiten dituzte saioak ontzian. Baina orain Marseillan daude. Bi asterako joan dira antzerki soziala lantzerako. «Oso polita da; izan ere baztertuenak bizi diren auzoa da. Bertako bizilagunekin antzerki tailerra prestatu dugu». Aurrera begira, Pasaia emakumeen memoria

historikoa ardatz hartuta ari da beste lan bat prestatzen. «Herrian emakumeek egin dituzten bilkura guztietara joan naiz eta oharra hartu ditut. Pasaia emakumeek eurek parte hartzea da asmoa», aurreratu digu.

Apirilaren 5ean Esther Carizo eta Blanca Inesen "Clown-Cierto Poético" ikuskizunarekin ekingo diete berriz emanaldiei. Azart Zoroen Itsasontziaren kultur programazioa <http://www.azart.org/webpages/> helbidean aurki daiteke.

Banderak eta gorbatak

Joseba
Otondo

Banderak trapu bat izateaz harago sinboloak direla onartzen

badugu, modu berean,

ttattarrak edo gorbatak ere sinbolo bat direla onartu beharko dugu. Ez dut denboran gorbata-ri egozten ahal zaizkionak zer izan diren aztertuko, horiek nola aldatu diren... Gaur den egunean erran nahi duenaz jakitun, Gipuzkoako Diputazioko ahal- dun nagusia horrekin ikusteak eragin di- dan harridura bertzerik ez dut hizpi- de. Hasteko, bistakoa dena, gorbata- ren sinboloaz ari naiz, ez pertsonaz, bere izaeraz, jardunaz edo dena dela- koaz. Gorbata, oro har, klase pardai- detza batekin harremantzen dugu, kasta politiko jakin batekin, herrita- rrengandik bereizirik dagoen posi- zio politiko, ekonomiko eta kultural batekin. Hala, Gipuzkoako ahal- dun nagusia enpresen nazioartekotza bulkatzeko hitzarmenaren sinadu- ran halako ehunkiarekin ikusteak zer pentsa eman dit. Izan ere, enpre- sen nazioartekotzearena alde batean utzita, herritarra eta herrikoia izan nahi duen gobernu baten aitzindaria Euskal Herrian halako kutsu sinboli- koa duen ttattarrarekin agertzeak, guttuenik, ez ulertzea eragiten du, eta hortik goiti, norberak dakusakee- na. Krisiaren gorrienean, langileen eta herri sektoreen kontrako neu- rriak bat bertzearen gibeletik josten direlarik, klase etsaiaren sinboloekin agertzea nahasgarria da. Eta garbi dut Gipuzkoa hamaika gauzetan ai- tzindari izaten ari dela eta babes so- ziala bermatzeko egiten ari den lana, baina langile klaseak eta herri sekto- reek bizi duten deskonposizio ideo- logiko-politikoko garai hauetan gure identitate sozial eta politikoaren aurkaria den klasearen sinboloare- kin agertzea ez da lagungarria. Ba- tzuen begietara, zentzuzkotasuna eta zentraltasuna, heldutasuna ira- doki dezake horrek, nolabait, deabru adardun eta buztandunaz harago homologarria den gobernu aurrera- koia. Alta, hori baino gehiago, inon- go legek eta epaik horretarat derri- gortu gabe herritarren zanpatzailea den klasearen sinboloa dakusat. •



Nagore Amondarain

Umorearen kode etikoa?

Umore sena bizitza pozez bizitzearekin lotua dago eta bizitza horretan gertatzen dena poztasunez hartzearekin. Umoreak barrea dakar eta ziur barrearen etikari buruz ere asko esan daitekeela. Duela bi aste Kontxako hondartzan txakur batekin gertatu zenak, adibidez, umorearen aldaera batzuk azaleratu ditu. Igandean grabatu eta gertatu zen gertakariak 17.000 ikustaldi zituen astelehen gauean, 66.000 inguru astearte goizean eta hau idazten ari naizen unean 462.856. Neureak ere hainbat izango dira hor ageri den zenbaki luzeko ikustaldiak, hainbat alditan ikusi baitut eta hainbat gonbidatu ditudalako ikustera. Argi dago ikustaldi bat baino gehiago behar dituela bideo honek irribarrea, barrea edo algara sortarazteko. Horixe izan zen nire hurrenkera, gutxienez. Hala ere, esan dudan moduan umorearen aldaera asko azaleratu zaizkit inguruan azken asteotan eta ez dakit oso ondo non dagoen umorearen benetakotasuna. Inkongruentzia bat egon daiteke irudi/audio hauen eta barrearen artean. Agian erantzun emozional bat da, eta aztertu beharrekoa umore sen irrazionala da edo moralki ez-zuzena dena.

Aste berdinean jakin izan dugu Donostia bisitatuko duela Joaquin Reyesek martxoan. *Muchachada Nuiren* hiru ordutako esketx segida batek baino barre gehiago eginarazi dit bi minutuko Kontxako grabazioak. Eta inguruan partekatu dudanen artean, jabetu naiz batzuek ez diotela umore-rik ikusi grabazioari. Kasualitatez, umore surrealista edo absurdoaren zaleak izan dira bideoari mespretxuz begiratu diotenak. Eta beraiek izan dira Joaquin Reyesen ikuskizunerako sarrrerak erostera abiatu diren aurrenekoak; hogeieurotan egin ahal izango dute barre.

Pantailaren aurrean, bakarrik zarela, algara batean barre egitea ekarri du txakurraren bideoak, ez baitut uste delituaren atzetik froga bila ibili direnik 460.000 pertsona Youtube-n, ja-

bearena edo txakurrarena den delitua jakin nahian, alegia. Barreak beti du komunitatearen pentsamendu subkontzientea. Bakarrean barre egiten dugunean, gurekin batera, gure modu berdinean barreak irudikatzen ditugulako ingurukoak eta horrek gainera barregarriago bihurtzen du unea. Taldean elkartzean, asko izan dira bideoaren barre egin dutenak, eta une gorenak kontatzen, bakoitzari rola egokitzen eta giza lubakia zelan doan apurka osatzen birgogoratzeak beste barre saio luze bat ekarri du. Endorfina eta dopamina dosi handiak jariatzen ibili dira gure burmuinak etenik barik.

Edonon gerta daiteke, egunerokotasuneko edozein unetan, gertakari

batek ezezagunak barreka jartzea eta barreak ezezagunen arteko konplizitatea sortzea. Muturren aurrean dugu umorearen leherrarazlea, baina izango da zailtasunen bat nonbait, barrearen ariketarako hezkuntza ere ari delako sortzen, hortik azkenaldian ugaritu diren “barreterapia ikastaro”en iragarkiak.

Bideo biral bihurtu da Kontxako hondartzakoa. Modu berean esan dezakegu barrea ere birala dela; nahikoa da bat barrez hastea, inguru guztiak barrez hasteko. Umorea konstante antropologiko unibertsal eta komuna da kultura guztietan. Baina argi dago kodigo desberdinak mamitu ditugula kultura berean ere. Ahal den neurrian, beraz, egin dezagun irri, debaldekoka da eta. •



Umoreak barrea dakar eta ziur barrearen etikari buruz ere asko esan daitekeela.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Mikel Soto**

Transnazionalismoa

Martxoaren 8aren abaroan azaleratzen diren hausnarketen harira, berriz ere pentsatu dut ezker abertzalearen antolakuntza –eta ideologia– berrantolaketa honetan, feminismoarena ia osorik gainditu gabeko iraksgai gisa gelditu zaigula. Guztiari buruz eztabaidatu nahi izan genuen eta guztiaren erdibidean gelditu ginen («Sar gaitzen EBn, gero atera behar dugun erabakitzeko» hori historiako geratu zaigu). Ezin dena batera egin eta joango gara apurka apurka. Baina esango nuke ez garela urrats bat atzean gelditzen ari, bi baizik. Izan ere, feminismoari buruzko hausnarketak guretzat funtsezkoa den beste zerbaiti buruz, identitateari buruz, era ezberdin batean pentsatzeko balio diezaguke.

“Transfeminismos: Epistemes, fricciones y flujos” liburuaren edizio lanak egiterakoan, horixe izan nuen etengabe buruan. Aipatu antologiak Espainiar estatuan transfeminismoaren inguruan sortutako diskurtsoak, dinamikak, ekimenak kartografiatu nahi baditu ere, asko dauka Euskal Herritik. Apailatzailetako bat irundarra dugu eta, horrez gain, Medeakeko lagunek atal bat idatzi dute eta Itziar Zigak beste bat. Beraz, transfeminismoak erro indartsuak dauzka Euskal Herrian, eta esango nuke feminismoa ulertzeko eta garatzeko bide berriak jorratzeak –gure identitateen inguruko hainbat hausnarketa utzi dizkigula. Urrunegi ez joatearren, Kattalin Minerrek sarri egin izan du orri honetan bertan. Baina, oro har, mundua 1990eko hamarkadan goraldia izan zuen queer teoria gainditzen ari den honetan, guk oraindik ez diogu aurreneko kosk egin.

Transfeminismoaren, feminismo berrien edo queer feminismoen atzean identitatearen inguruko hausnarketa sakona dago. Gu zer garen eta gauzak zer diren azaltzeko saioa. Eta bilaketa horretan garrantzi berezia dute bazterreko identitateek eta identitate anitzeko subjektuek: trabestiek, migranteek, gorpuztasun ezberdinek, baztertuek, beltzek... Interesgarria gure herri zahar honentzat, euskaldunok mendeak baitaramatzagu gure identitateekin borrokan. Bazterrean egon da sarri guk identitate euskalduntzat daukagun hori (gehienetan folklorearekin nahasten duguna) eta ez dugu jakin historiatik bizirik atera diren ezpal horiekin berotuko gaituen su bat egiten.

Askotan esan izan dut inportanteagoa dela aurrera begiratzea atzera baino. Herri hau zerbait izango dela izan nahi duelako, ez izan zelako. Ulertzen dut historia erregai inportantea dela herri batentzat, baina herri proiektuei buruz ari naizenean, beti interesgarriagoa iruditzen zait aurrera begiratzea: zer gara eta zer izan nahi dugu galderak dira niretzat funtsezkoak (edo agian “Zer izan gara?” galdera interesgarri hori metodo historikoz ezer gutxi dakien jendearekin eztabaidatzeaz nazkatu naiz, beste gabe). XX. mendearen bigarren erdian urrats sendoak eman ziren kategoriatan berriak osatzeko orduan: Pueblo Trabajador Vascon kontzeptualizazioa, batetik, eta hizkuntzak euskaldun egiten gintuen ideia, bestetik. Baina, ez ziren aski izan edo horiek garatzeko bidean galdu gara, soilik kategoriatan bazter-tzaile gisa landu ditugulako.

Aipatu liburuaren hitzaurrean, Miriam Solák dioskunez: «Koloreak, klaseak, generoak edota ezberdintasun lesbia-

Askotan esan izan dut inportanteagoa dela aurrera begiratzea atzera baino. Herri hau zerbait izango dela izan nahi duelako, ez izan zelako. Zer gara eta zer izan nahi dugu galderak dira funtsezkoak

rrak ezin dute bakoitzak bere aldetik identitatea osatu, ezta eraldaketa erradikal baten oinarri politikoa izan ere. Osatzen gaituzten gizarte determinazioetako bakar bat ukatu gabe, kritika aktibistak izendatu, bilatu, baieztatu, errebindikatu behar ditu, gainditzeko eta haiengana berriz itzultzeko». Norbaitek pentsa dezake queer teoriaren atzean egon daitekeen identitateen erlatibizazioak identitate horien status quoa betikotzera garamatzala. Baliteke, baina ez dut uste gauden lokatz honetan hondorago joango garenik. Egun gertatzen denaren kontra, etorkizuneko Euskal Herria berdintasun politikoan oinarrituta egongo da; hori izango da bere baitako ezberdintasun linguistikoa, sexual edo ekonomikoak ebazteko tresna. Baina, ezinbestekoa dugu gaur egun ezberdintasun horiek proiektu politiko independentistan egokitzea, bestela ezinezkoa izango baita aberri berdinzale horretara heltzea. •

«Bidaietan
pentsatzen egotea
eta bizimodu errari
baten ametsarekin
bizitzea oso neurea
izan dut. Lasaitzeko
ibili egin behar
izaten dut»

«Uste dut jende
askok erabili duela
bidaia sendagai
bezala, eta
erromesak ere
neurri handi batean
terapia gisa
zerabiltela eta
darabiltela bidaia,
ataraxia lortzeko
bitarteko gisa»

Edorta Jimenezek kontatzen du Euskaltzaindiaren liburategitik fotokopiatu zuela Mikel Lasaren “Poema bilduma” eta Mundakako Talara (talaiara) igo eta Izaro aurrean zuela irakurtzen zuela poema bat eta aserik ardo batzuk edatera jaisten zela portu zaharrera. Horrela jakin zuela dio poesia mota hori euskaraz ere egin zitekeela eta Arestirena baino “poesiagoa” iruditut zitzaiola. Biak izan ziren garai bertsukoak (Aresti bost urtez zaharrago), biek inauguratu zuten poesia modernoaren aroa gurean, nahiz eta bide arras ezberdinetatik egin zuten bidea. Mikelen obra laburra izan zen. 18 urtetik 25era idatzitakoak bildu zituen “Poema bilduma” famatua. Liburu hori 1984an berrargitaratu zen bere marrazkiz lagunduta eta “Memory Dump” izenekoan bildu zituen 1993an bere poesia guztiarekin batean azken urteetako gogoeta, liburu iruzkin eta ohar pertsonalak, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez idatziak. Berak behin baino gehiagotan liburua-ren zati “pertsonalegi” horrek lotsa ematen diola aitortu izan badu ere, euskaraz gutxi landu den generoa da (Anjel Lertxundi da salbuespena) eta oso da interesgarria eta ederra. Orain hamar urte erretiroa hartu eta aspaldidanik lantzen ari zen proiektuari ekin zion: hogeit bidaia baino gehiago egin ditu bizikletan Europar barrena, margo kaxa bat lagun zuela. Bidaia horietan egindako 200 bat akuarela, pastel eta marrazki bildu ditu bidaia kaiera batzuekin batean Koldo Mitxelenako Ganbara aretoan.

«**Memory Dump**» liburuan kontatu zenuenez, irlandar bidaia bat aurkitu zenuen behinola Donostiako Kontxan, eserleku batean eserita, ondolan bizikleta zuela. 1989ko kontua da hori. Orduan hasi omen zinen erretiroa hartu eta gero praktikatu duzun nomadismoarekin amets egiten.

Lehenagotik ari nintzen bizimodu horrekin amesten, baina bidaia horrena premonizio mo-

duko bat izan zen. 70 bat urte zituen, gizon segaila zen, dotorea, fisikoki erakargarria. Esan dezagun haizeak zizelkatu eta taxututako aurpegia zuela. “Nik ere horrelakoa izan nahi dut adin horretara iristen naizenean” esan nuen nirekiko. Bere atzetik ibili nintzen eta berarekin hitz batzuk egitera iritsi nintzen biharamunean. Lehenagotik nuen inoiz bidaiatzen hasteko asmoa, baina gizon hark gogoetak mamitzen hasteko bidea eman zidan.

Bidaiaarena etengabe erabili izan duzun gaia da, zure testuetan ere asko agertzen dena.

Nire barneko urduritasunaren aterabide bat izan daiteke. Bidaietan pentsatzen egotea eta bizimodu errari baten ametsarekin bizitzea oso neurea izan dut. La-

saitzeko ibili egin behar izaten dut. Uste dut jende askok erabili duela bidaia sendagai bezala eta erromesak ere neurri handi batean terapia gisa zerabiltela eta darabiltela bidaia, ataraxia lortzeko bitarteko gisa. Bruce Chatwin eredugarria da gai hau argitzeko. Londreseko arte enkante-etxe bateko exekutiboa izan zen, dena utzi eta Patagonia zeharkatzera alde egin zuen arte. Oraindik orain irakurri ditut bere gutunak. Gizonak nomadismorako joera hori zergatik duen aztertu nahi izan zuen. Eta uste dut gure barruko egonezina dela eragile nagusietako bat. Mandelstam poetaren bizimoduak eta idazteko erak ere lotura estua du gai honekin. Stalinekin gogor jazarri zuen eta bere emaztearekin batera batetik bestera ibili behar izan

zuen miseria gorrian biziz, eta bere poema gehienak buruz idazten zituen ibilian zihoan bitartean. Piaget pedagogoz ere entzun izan dut mendira joaten zela pentsatzera eta ibilian taxutzen zitzuela bere teoriak.

Baina zu ez zara Chatwin eta Mandelstam bezala oinez ibili, bizikletan baizik.

Ez naiz oinez ibiltzekoa. Bizikleta oso lagungarria dela iruditzen zait. Oinez ibiltzeak asko mugatzen du. Hamar edo hamabost eguneko bidaia bat egitera joan eta ezin da oinez gauza handirik egin. Bizikletan errazagoa da kilometroak egitea baina, bestalde, bidea ikusteko adina aukera ematen du bizikletaren abiadurak, gauzei erreparatzeko, oharatzeko. Nik, gainera, oso etapa la-



«Nire barruko urduritasunaren aterabide bat izan daiteke bidaia»

burrak egiten ditut; batzuetan 80 kilometro egingo ditut, baina hurrena 30 bakarrik.

Entrenatzen al zara? Ipurdia gogortuta joaten al zara?

Hori nahitaezkoa da. Proventzara egin nuen azken bidaian aurretik batere ibili gabe joan nintzen eta bigarren egunerako ipurdia min-beratuta nuen. Ez nuen batere gozatu.

Bertan alokatzen al duzu bizikleta?

Ez, neurea eramaten dut beti. Errepideko bizikleta erabiltzen dut; gutxi pisatzen du, poltsa berezi batean gorde eta eraman erraza da. Aireportuan bertan muntatu, trepetak gainean jarri eta abiatzen naiz. Arropak sartu ezinik ibili ohi naiz beti. Manila-

rraren gainean burua jartzeko moduko arropa pila eramaten dut. Gogoratzen dut Connemara-
ra joan nintzen batean aldapa bat igo eta nekaturik goitik behera burua buruko horren gainean jarrita, lo egiten ari banintz bezala, nola jaitsi nintzen. Tarteka, noski, begiratzen nuen aurrean zer nuen. Connemara leku ederra da, nire geopoetikaren ikurretako bat, lurra eta ura modu ikusgarrian lotzen dituelako.

Zein da gehien bisitatu duzun herrialdea?

Italia. Guztira hogeita hiru bidaia egin baditut, hamar bat Italiara izan dira: herrialde hori goitik behera zeharkatu dut, hasi Gardatik eta Siziliaraino. Eskualde batzuk, noski, zapaldu gabe geratu zaizkit eta jarraitzeko asmoa edo gogo badut. Bidaia bakoitzean margolari edo idazle ezagunen arrastoak jarraitzen ditut ahal den neurrian. Gardatik abiatu nuen bidaian, Katulo poetaren jaioterria bisitatu nuen. Montaleren arrastoak jarraitu ditut, Leopardirenak Recanatin, Arezzora joan eta Leyenda de la Santa Croce delakoa ezagutu nuen, hogeita gehiago margolarik egindako triptikoa da, oso ederra. Eliza horretan entzun nuen nik entzun dudan azken meza, triptikoari begira. Lehen bidaia Cortonatik abiatu nuen eta Piero della Francescaren ibilbidea egin nuen. Orduan ohartu nintzen Italiak bi aurpegi dituela. Badu aurpegi atsegin, frantziskotar eta ezkerreko bat. Partisanoen Italia da hori. Eta badago Italia tragiko, eskuindar eta faxista bat ere. Leku ikusgarri asko ikusi ditut. Riminin, esaterako, bada Alberti artearen teorikoak diseinatutako katedral bat, elizak ozta-ozta onartu zena. Inon ikusi dudan elizarik paganoena da, hedonista erabat. Elizaren barrualdea putzuz beteta dago, aingeruak erreketan bainatzen ari diren haurrak dira, alabastroan eginak... ikusgarria. Bidaiak kontatzen hasten banaiz, ez dugu bukatuko.

Ez dira asko prestatutakoak.

Ez, ez. Aurretik ostaturik ez dut sekula hartzen eta askotan parke

batean egin izan dut lo, edo zelai baten ertzean.

Estatu frantziarrean Proventza maite duzu.

Van Gogh-en arrastoen bila ibili izan naiz han. Margolari honekiko dudan lilura nerabezarokoa da. Aldizkari batean “Gau izarra-tua” ikusi eta txundituta geratu nintzen. Lilura ez da bere margolanekikoa bakarrik, pertsonarekikoa ere bada. Bere gutunak izugarriak dira, asko anaiari idatzitakoak. Esaten dute gutun liburu hori literatura unibertsaleko onenetakoa ote den. Van Gogh-en arrastoei jarraiki, ezustekoak izan ditut. Behin Camargue aldera nindoala, gauean zela batean lo egin eta ihintzez bustita abiatu nintzen Les Saintes Marie de la Mer herrixkara, hor margolanak baititu. Herrixka famatua da urtean behin Frantzia osoko ijitoak bertan biltzen direlako. Hortik, Arlesera jo nuen eta hirira iritsi baino lehen txoko eder batekin topo egin nuen. Han margotzen ari nintzela, gizon bat etorri zitzaidan esatera duela gutxi arte plaka bat egona zela han eta jartzen zuela Van Gogh egoten zela margotzen. Niretzako nire maisuarekin topo egitea bezala izan zen. Arlesen ere asko egon zen. Gauguinekin han ibili zen haserretu ziren arte.

Zuk asko maite duzun Michel Tournierrek dio musikariak batetik bestera ibiltzekoak direla eta margolariak, aldiz, sustrai gehiago dutela, lotuagoak daudela paisaia bati. Zureak entzunda, ez dirudi egia denik.

Ez da Van Gogh-en eta Gauguinen kasua ere. Dena den, Van Gogh-en margolari bizitza laburra izan zen, zazpi bat urte iraun zuen eta milaka margolan utzi zituen.

Zure poeta bizitza ere zazpi urtekoa izan zen.

Bera hil egin zen eta horregatik bukatu ziren haren lanak. Nik utzi egin nuen poesia.

Komunikabideetan erakusketaren berri eman dute. Zure ibilbideaz hitz egin behar dugu pixka bat. Zein izan ziren zure ikasketak?

MIKEL
LASA

POETA ETA MARGOLARIA

Poema bilduma bakar batekin igaro zen gure letren historiara, baina ezer idatzi ez balu ere, poeta izango zen Mikel Lasa. Orain bidaietako margolanak erakutsi ditu.

Salamanca Lasalletarrekin Filosofia eta Teologia ikasketak egin nituen eta hor hasi nintzen euskaraz idazten 50eko hamarkada bukaeran. Beti esan izan dut euskaraz nire barneko hizkuntza zela. Askok irakurtzen nuen, pentsatu eta gogoetak euskaraz egiten nituen eta intimitate hori lantzetik sortu zitzaidala uste dut poesia egiteko joera. Geroago ezagutu nuen Aresti. Bere “Harri eta herri”n nire aipamen bat egiten du. Kontatzen du nola irakurri zizkion Blas de Oterori nire poemak itzulpen batzuk. Aresti gustukoa nuen, indar handiko idazlea zen.

Baina baduzu testu bat «Memory Dump»en «Maldan behe-ra» gogor kritikatzu.

Ez zitzaidan gustatu. Eliot-en eragin nabaria du Arestik lan horretan, baina ez zuen haren espiritualtasunik atzeman. Kritika gogorra egin nion, baina Arestik hizkuntza literario sendoa zuen eta hori aitortu egin behar zaio. Itzultzen ere oso ona zen. Gogoratu dut “Egan”en nola atera zituen gaztelaniaz idazten zuten Bilbo inguruko poeta batzuen lanak 60ko hamarkada hasieran. Urte horretan Liejako Arte Ederretako Eskolara joan nintzen pintura ikasteko asmoz. Bizi ahal izateko platerak garbitzen nituen eta “Egan”en ale bat aurrean jarrita garbitzen nituela platerak, poema haiek buruz ikasteko asmoz. Hamarkada horren hasieran Philippe Oyamburu Getariara etorri zitzaidan bisitan eta Arestiri buruzko iritzi batzuk eman nizkion eta artikulu bat atera zuen “Notes Lettres Françaises” aldizkarian garaiko euskal literaturaz.

Ikasketak Salamanca utzi ditugu.

Salamanca hiru urte eman, etxera itzuli eta Ekonomia ikaslea erabaki nuen, baina denbora erdian egiteko asmoarekin. Lehen bi ikasturteak azterketa batzuen bidez konbalidatu nituen, baina hirugarren ikasturtea hasi ordez Liejara joan nintzen pinturara ikastera, eta sei hilabete batekin bestera eman nituen. Sorbonera ere gerturatu nintzen, han ikasten jarraitzeko zer aukera nituen begiratzeko. Baina klase ba-

IBILBIDEA

Euskal poesia modernoaren aitapontekoetako bat izan zen, Arestirekin parez pare. 18 urtetik 25era bitartean idatzitakoak bildu zituen “Poema bilduma” famatuan. Liburu hori 1984an berrargitaratu zen bere marrazkiz lagunduta eta “Memory Dump” izenekoan bildu zituen 1993an. Orain hamar urte erretiroa hartu eta proiektu berri bati ekin zion: Europar barrena egindako hogeitik gora bidaietan egindako 200 akuarela, pastel eta marrazkiak bildu eta erakusketa osatzea. Koldo Mitxelena Ganbara aretoan daude ikusgai.



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

«Telebista iritsi aurretik bazen bohemia bat, tabernaz taberna bis komikoa lantzen zuen jende bat»

Zure lehen bidaietako bat Irlandara egin zenuen. Zer du herrialde horrek horrenbeste erakartzen gaituena?

Nik uste dut dohain berezi bat dutela hizketarako edo kontaketaarako. Beren pub horietan berriketan ematen dituzte orduak eta hitz egitea arte bihurtu dute: dena mitifikatzen dute, dena esajeratzen dute, eta mistifikatu ere bai. Hortik atera dira Joyce bezalako erraldoiak. Ezin da bere obra ulertu Dublingo jende arruntaren izaera hori kontuan izan gabe. Eguneroko bohemia bat bizi dute eta hortik ateratako pasadizoak kontatzen dituzte. Euskal Herrian ere bagenuen hitz egiteko modu hori, herri txikietan bereziki. Bazegoen eguneroko bohemia bat, baina telebistak desegin egin zuen bizimodu hori. Bohemia diodanean tabernaz taberna ibiltzen zen jende bati buruz ari naiz, eta horien artean baziren izugarritzko bis komikoa zutenak: hitz egiteko, komedia

egiteko eta bat-batean festa antolatze gaitasuna zuen jendea zen. Hori literatura bihurtu dute Irlandan, bai eta beharbada Europa erdialdeko beste zenbait herrialdetan ere.

Guk ez dugu hori lortu. Hemen bertsolariek landu dute hitz egiteko modu hori, baina Auspoa sailak egin duen lana, erraldoia izanik ere, altxor hori murriztu, mehartu egiten du, literatura bihurtu ordez.

Bai, hala da. Bazegoen herrian beste bizitasun bat, Auspoako liburuek jaso ez dutena. Beharbada ez da lan erraza, baina beste herrialde batzuetan uste dut lortu dutela ondare hori literatura mailara eramatea. “Memory Dump”en badakit idatzi nuela testuren bat honi buruz, baina ez dut zehatz zein den gogoratzen.

tera joan, atea ireki eta gelan sekulako ikasle piloak zegoela ikustean, hura ez zela niretzako lekua pentsatu eta itzuli egin nintzen. Etxera etorri eta soldaduska egin behar izan nuen Astorgan. Oso zoriontsu izan nintzen soldaduskan. Nire oporrik luzeenak izan ziren. Inguruko lautadetan ibiltzen nintzen gizon errari baten moduan. Garai horretan, sudurra itxi egiten zitzaidan leku itxietan sartu orduko eta eragozpen hori ere han sendatu zitzaidan betiko. Ekonomia bi urtetan bukatu nuen, eta ohartu nintzen ikasketak haiek ez zidatela balio enpresa bateko kontuak emateko ere eta Suitzara jo nuen, Friburgora, Informatika ikastera. Diploma bat atera nuen. Bigarren ikasturtean irakasle laguntzaile gisa ere lan egin nuen. Nire lanbidea hori izan da, informatikari gisa lan egin dut.

Labur kontatuta, nondik nora ibili zara lanean?

Ularko kooperatiban hasi nintzen lanean. Oraindik ere kooperatiba zalea naiz, nire ideologia-aren ardatzetako bat da kooperatibismoa, nahiz eta Arizmendiariaren predikuetan ez nuen sinesten. Ularkon sei urte egin nituen, prozesu zenbait informatizatzen. Gogoratzen dut Oñatin oraindik eraiki gabe zegoen kooperatiba baten diseinua egin genuela maila altuko sukaldeak fabrikatzeko. Eta Frankfurtetako beste altxari enpresa baten sostengua behar zutenez, hango teknikariak etorri ziren eta harrituta geratu ziren guk programazioan egin genuen lanarekin. Urte horietan Ikastolen Elkartearekin ere lan batzuk egin genituen Euskadiko Kutxak departamendu txiki bat sortu baitzuen ikastolen ekonomia bideratu eta pedagogiaren arloan lan batzuk diseinatzeko. Elebitasunaren programa eta lau ereduak diseinua, esaterako, orduan egin genuen. Tartean Mari Karmen Garmendia ere ibili zen. Bitarte horretan Gipuzkoako Foru Aldundian lan eskaintza bat ikusi nuen eta hara aurkeztu nintzen. Eta hor egin nituen hogeita piko urte informatikaren arloan analista bezala lanean.



Sukaldean ala ohean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Sukaldea eta ohea, jakina, biak ditugu gustuko. Eta, zeinen ongi ditugun lotzen sukaldea eta ohea egunerokoan. Bazkaritik siestara; afaritik lotara, edo ez; ohetik gosaltzera, edo alderantziz...

Baina, non duzu pertsona bat benetan ezagutuko, agian errailetako atea zeharkatzeraino, ohean ala sukaldean? Ohean! erantzungo genuke gehienok. Izan ere, ba ote dago biluztea baino ariketa gardenagorik elkar ezagutzeko... Larru jotzean ohekidearen biluztasuna azalean geratzen da orde eta, gainera, errepikatzen diren hainbat arrisku ere baditu. Adibidez, goritasunak itsutzea gehiago ezer ezin ikusteraino. Edo bada ohea ilunpetan nahi duenik, pertsiana jaitsi

behar badu ere, dena beltz. Edo, gizonon abilitate eksklusiboa, hasperenik estuenak amaitu ahala loak hartzea. Edo, baten ala bien gorenko plazer planta amaiezinezkoaren saioa...

Oheratzea ez da kontu bat, artea baizik. Pittinka trebatzen dena, baina etengabe arituz gero soilik. Zenbatu ditzagun orduak, bestela. Horregatik ote dugu Aturri eta Ebro arteko ohean baino sukaldean ospe dezentez hobe... Sukaldean lasaia ezagutu ahalko duzu ohekidea. Orduak eta orduak ematen baititugu bertan eta sutako beroa eraman-garriagoa baita. Errezetekin asmatu behar. Janariak bezala edariak lagunduko dizu, esaterako chardonay ardo txuri bustiak, erlaxa-

tzen eta inspiratzen, finean hurbiltzen. Sakonago ezagutzen.

Nik, dena den, argi dut bikotea bene-benetan ezagutzeko menu orok errezeta ezinbestekoa duela ohea. Asmatuko duzu baldin eta aholku biok jarraitzen badituzu: Ilunperik ez, igo pertsianak, gehienez ere gortinak; hartara, begiak parez pare dituzuenean, ohekidearen erraiek diotena sentitu ahalko duzu. Eta, hau ere gero eta garrantzitsuagoa dena, biharamunean zure alboan esnatuko dena zurekin oheratzen den berbera izan dadin... Larru jotze osteko zigarroaren ke arteko hitz sakon eta pausatuei egin kasu. Begi itxietatik entzun, begi itxietatik askatu barruak. Hurrengo goxoagoa izanen da. •

ADAKI-REN ANTTON ELVIS

Smile Festival saria izan da merkataritza txikiei irria aterarazi izanaren ordaina

 **GIZARTEA** / amalur.artola@gaur8.info

Merkatari txikiek erronka handia dute eskuartean: gero eta bezero gehiago dituzten merkataritza gunen handien aurrean defendatu behar dute euren burua. Helburu horrekin abiatu zen Tolosa Merkat proiektua eta, berriki, Smile Festival-en saritu dute proiektu horretarako publizitate kanpaina diseinatu zuen Adaki Komunikazioa.

Ez dira garai onak merkataritza txikien- tzat. Azken urtee- tan, ez dira gutxi izan behin betiko pertsiana beheratu behar izan dutenak eta, haien joanarekin batera, apurka bizia galtzen doaz hainbat herri eta auzotako erdiguneak. Kontua ez da berria eta, herriari bizia ematen diotenak merkataritza txikiak direla jabetuta, azken urteetan zenbait udalek gertuko eta kalitatezko merkataritza eredu horren aldeko kanpainak sustatu dituzte. Horietako bat da Tolosa. Tolosa & Co. merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza elkartearekin batera, orain bi urte Tolosa Merkat proiektua abiatu zuen: merkataritza dentsitate txikiko eremu- tan merkataritza berreskuratu eta, bide batez, ekintzaileei negozio aukerak sortzeko baliabideak eskaini as- moz, hutsik zeuden zazpi lokal baldintza interesgarrietan es- kaini zituen. Horretarako, ekin- tzaileek euren proposamenak ideia lehiaketa batera aurkeztu behar zituzten eta, irabazle suertatuz gero, lokal horietako bat bost urterako alokairuan hartzeko aukera izango zuten.

Era berean, ekimen honen be- rri emateko lehiaketa zabaldu zuen Udalak eta Adaki Komuni- kazioa-ren proposamena hauta- tu zuen publizitate eta marketin kanpaina garatzeko. Orain, Smi- le Festival-eko (Publizitatearen eta Umorearen Europako Jaial- dia) “Zuzeneko Marketinean merkataritza erabilerarik one- na” saria eman diote kanpaina harengatik eta, batez ere, Tolo-

sako Zerkausion egindako flash- mobagatik, Euskal Herrian egin zen lehenetarikoa izanagatik so- na eskuratu zuen hura.

Madriletik etorri berritan hitz egin dugu komunikazioa, bran- dinga eta webguneak ere gara- tzen dituen Adakiko kide Tomas Mendizabalekin. Berak diseina- tu zuen kanpaina, Andoni Larra- ñagarekin batera: «Bi ideia geni- tuen hasieran, ‘Galaxietako Gerra’ irudi gisa erabiltzea ere otu zitzaigulako. Baina kanpai- na bat antolatzeraz zozazenean bi- deragarritasuna eta funtzional- tasuna hartu behar dituzu kontuan eta, Elvisena teknikoki aurrera eramateko errazagoa ze- la ikusita, haren bueltan eraiki genuen kanpaina». Hala, Antton Elvis pertsonaia sortu zuten. El- visek Tolosa Merkat lehiaketa- ren berri izan eta bertan parte hartzea erabakiko du, bere beti- ko ametsa betetzeko: ile-apain- degi berezi bat jartzea.

«Gure lanak bi zati izan zitue- la esan daiteke: alde batetik gra- fikoa, hau da, kartelak eta abar prestatzea, eta, bestetik, Udalak kanpaina telebistara iritsi zedila nahi izan eta horretarako zer- bait diseinatu beharra zegoen», azaldu du. Erronka horri aurre egiteko baliabide bila zebiltzala, flashmob ereduarekin topo egin eta erabilgarria izan zitekeela erabaki zuten: «Horixe izan zen erronka handiena. Telebista era- kartzeko herrian zerbait egitea. Bagenuen handicap bat, gaine- ra: ordurako ekimenaren albis- tea telebistara iritsia zen eta, behin zerbait emana denean, gaurkotasuna galtzen du eta ja- da ez da horren erakargarria. ‘El-

Eskuinean, Tolosako Zerkausion flashmobaren ostean ateratako argazkia. Behean, Adakiko lantaldea garaikurrarekin eta Smile Festivalen.

ADAKI





vis lokal bila' kanpainaren berri emateko, merkatuan bertan flashmoba antolatu genuen eta zenbait kazetariri gonbidapen pertsonalizatua bidali genien, Elvisen betaurreko eta guzti, zer egingo genuen jakin zezaten. Erakargarri horrek atentzioa eman zien nonbait eta etorri egin ziren; zenbait saiotan agertzea lortu genuen eta horrekin lortu genuen jarri ziguten erronkari aurre egitea», azaldu du, pozik.

Umorearen erabileraren gainean ez zutela gehiegi pentsatu aitortu du Mendizabalek, «era naturalean» etorri zitzaie, «azken batean nahi genuena kartel deigarriak egitea zelako, jendearen arreta erakarri eta begiratzeko eratzeko modukoak. Publizitatean umorea erabiltzeak baditu bere onurak eta eraiki genuen istorioarekin oso ondo zihoala iruditu zitzaigun». Karlekin, flashmobarekin bezala, arreta erakarri eta irri txikia aterarazi zieten herritarrei, baina ez ziren haiek izan ekimen honen ondo pasa zuten bakarrak. Kanpaina diseinatzen beraien ere barre batzuk egindakoak direla aitortu du

Mendizabalek: «Azkenean, diru kopuru bat izaten duzu eta, normalean, batez ere egungo egoerarekin, murriz edo mugatu samarra izaten denez, sormena erabiltzera derrigortuta zaude. Eta hori oso dibertigarria izan daiteke. Gaia aintzat hartuta egia da ondo pasa genuela, horretarako aukera handia ematen zigulako; beste batzuetan, adibidez torlojuen katalogoak egitea tokatu izan zaigunean, ez gara horrenbeste dibertitu [barrez]. Egia esan, atsegina izan zen kanpaina hori osatzea, bezeroak ere nahiko libre utzi gintuen eta ia ia hasieran planteatu genuen ideia izan zen amaierara arte iritsi zena».

PUBLIZITATEAREN ERALDAKETA

Nola edo hala jendartearen arreta erakartzea da publizitatearen helburua, iragartzen duzun hori bezero potentzialaren begi-belarrietaraino iristea eta, ahal bada, gogoan hartzea. Horretarako tradizionalki erabili izan diren estrategien aurrean, publizitateak bide berriak hartu dituela azaldu du Mendizabalek. «Azken urteetan biral bilakatzean dago gakoa eta hasieran guk as-

mo hori ere baguen, sare sozialen arloak egun garrantzi handia duelako eta etorkizunean ere izango duelako. Bestalde, kanpaina hau iaz amaitu bazen ere orain bi urte abiatu genuen eta garai hartan flashmoben kontua hasiberria zen. Egun, edonork ezagutzen ditu eta, erabiltzen den arren, bere indarra galdu egin du. Garai hartan, oraindik gure inguruan ez zen ezaguna. Orain *selfie*-a [norbere buruari argazkia atera eta sare sozialen bidez partekatzea] bezala, edo pasa den urtean lipduba izan zen bezala. Horiek sortzen diren uneen bertan harrapatzen badituzu, berrizalea denez, oso erabilgarriak dira.

Tolosa Merkat proiektuak tokiko merkataritza sustatzea zuen xede. Horretarako, herrian hutsik zeuden zenbait lokal baldintza onetan alokatu zizkien Udalak ekintzaile onenei

Antton Elvis izan zen publizitate eta marketin kanpainako protagonista: ideia lehiaketara bere burua aurkeztea erabaki zuen herrian ile apaindegi bat zabaltzeko asmoz

Baina bere garaia izaten dute, orain flashmobak ez du erakargarritasun hori». Alde horretatik, publizitate eta marketin munduan dabiltzanak beti berrikuntzen atzetik ibiltzen direla ziurtatu du Mendizabalek. «Badakigu etorriko direla beste modu batzuk jendea erakartzeko, hau oso azkar doalako, eta ordu asko ematen ditugu sare sozialak eta abar begiratzeko, munduan zer egiten duten jakiteko. Sarietara joan ginenean, Madrilen, Oscar sarietako *usie*-arena aipatzen egon ginen [talde *selfie*-a; Ellen DeGeneres Oscar sarietako aurkezleak hartu eta Twitter bidez zabaldutako argazkiak bi milioi txioren marka gaingitu zuen] eta guk ere egin genuen gure *usie*-a. Etorriko dira halako kontuak, egunez egun sortzen direlako, eta adi egon behar izaten dugu, tendentziak jarraituz».

Madrilera saria jasotzera lantaldeko lau kide joan ziren eta sariarekin gustura geratu zirela dio, batetik halako sari bat jasotzea «beti delako pozgarria» eta, bestetik, «bidaiatxo bat egin eta dibertitzeko aukera ere eman digulako».

HERRIKO MERKATARITZA SUSTATUZ

Adaki Komunikazioa-k egoitza Ezkio-Itsason badu ere, Mendizabal tolosarra da eta, Tolosa Merkat proposamena interesgarria dela dio. Udalak emandako datuen arabera, 15.000 bizilagun baino gehiago dituzten udalerrien artean mila bizilagunek merkataritza dentsitate altuena duen herria da, 24,7ko ratioarekin. Hori pozgarria dela dio Mendizabalek: «Tolosak duen denda kopurua izugarria da eta, tolosarra izanik, esan dezaket arlo hau asko lantzen ari dela, mugimendua dagoela eta horren lagungarri izan dela Udalak egindako lana, lokal horiek oso baldintza onetan eskaini dituelako. Uste dut edozein herrik halako gauzetan oinarritu behar duela, badakigulako norantz doazen gauzak; jende asko merkatal zentroetara joaten da eta herrietako merkataria eta tabernariak erronka handia dute eskuartearen».

infraganti

MIKEL SANJUAN

Egurra lantzen maisua da imajinatzerik ez dauden irudiak sortzeko gai delako. Aitarengandik jaso zituen tailagintzaren sekretuak, eta lanbidea gozatzen eta maitatzen ikasi zuen gero. Garaietara egokituta, pieza txiki eta bereziak egiten ditu; esaterako, gaur Azkoitia-Azpeitia lasterketan irabazleek etxeratuko dituzten garaikurrak.

Bere tailerreko ateak ez ditu ixten. Burua zirrikitutik gerturatu bezain laster atzematen zaio lekuari bere funtsa. Egur usaina, txirbilak, tresneria desberdina han eta hemen... Lan egiteko mahaletako baten gainean, amaitzear dauden hainbat garaikur. Gaur bertan egingo den Azkoitia-Azpeitia maratoni erdiko garaileek euren etxeetara eramango dituztenak dira, hain zuzen. «Hauek dira, nik esaten dudana moduan, kanpotik datozenek eramango dituztenak», kontatu du barrez; beste mahai batean ditu lehen azpeitiarrari, lehen azkoitiarrari... banatuko dizkietenak. Lanak denborarekin amaitzea gustatzen zaio, azken ukituak emateko denbora gehiago behar badu ere, «baina oraingo honetan lanak pilatu» zaizkio. Azken egun hauetan, beraz, buru-belarri aritu da garaikurrak fintzen eta bere gustura goxatzen.

Trofeoen ondoan du pertsona bati oparitan egiteko egurretan zizelkatutako liburuxka bat, bertso eta guzti. «Lehen taila beste modu batean egiten zen; batez ere, altzariak zizelkatzaren ziren, gaur egun taila artistikoagoa egiten da; banakako lanak egiten dira», kontatu du.

Gaur egun altzariak oso gutxi lantzen dituzte, «besteak beste, modak ere aldatu direlako eta gaur egun modan dagoen estiloa askoz ere soilagoa delako, apenas altzaririk ere izaten ez duena». Joera hori aldatu bitartean ez du uste altzarigintzan behar handirik izango duenik, eraberritu nahi

dituzten eraikin garrantzitsuetatik iristen zaizkion enkarguak kenduta. Moldez egiten ziren lanen enkarguak ere gero eta gutxiago jasotzen ditu. «Lehen, nolabait esateko, mekanikoagoak ziren lanak egiten ziren eta tailagilea horretara mugatzen zen, taila egitera; gaur egun diseinatu, egurra prestatu, tailatu eta bernizatu ere egin behar izaten dugu». ohartarazi du.

Hori hala, piezak balio duten adina kobratzea zaila dela uste du. «Lan bakoitzaren atzean ordu mordo dago; horiek guztiak ezin dira dirutan eskatu, lana erosi nahi duenarentzat gehiegi delako». Egiten dituen lanekin maitemindu egiten da, izan ere. Horregatik, hain justu ere, kosta egiten zaio «amaitu dut» esatea. «Lan batekin harreman berezi hori garatzen badut, burutik kendu ezinik ibiltzen naiz eta beti ikusten dut hobetu daitekeen zerbait», onartu du.

Krisiaren eragina antzeman badu ere, lanik ez zaio falta, berea bezalako espezializatutako tailerrik ez dagoelako.

AITAREN SEMEA

Aitarengatik jaso zuen ofizio honen eskarmentua eta elkarrekin egin dute lan, hark erretiroa hartu arte. Oraindik ere mantendu egiten du, ordea, haren mahaia tailerrean. «Oraindik ere arraro egiten zait aita tailerrean zehar ez ikustea; ia egunero gerturatzen da tailerreko martxa ikustera eta dagoeneko berak zekien adina dakidala esaten jarduten du», aipatu du barrez.

Hamazazpi urterekin hasi zen seriozki zizelkatzen aitaren babespean lehenik eta pixka-



naka gero eta askeago geroago. «Berezkoa izan behar da zerbait eta gero gustatu egin behar zaizu egiten duzun hori», hausnartu du.

EGUZKI LOREEN MODA

Inork esan izan balio ez lukeen sinetsiko, baina eguzki loreak zizelkatzen ordu asko ematen dituela nabarmendu du. «Lehenengoz eguzki lore bat egiteko eskatu zidatenean, ez nuen jakin ondo zer eskatu zidaten ere, inoiz ez zitzaidan bururatu ere egin halakorik egitea», kontatu du. Gaur egun esan daiteke nahi beste egiteko aukera duela. «Zalantzarik gabe gehien saltzen dudana produktua da, bai bertako jendea, bai eta kanpotik deitzen eta eskatzen duen jendearen artean ere», nabarmendu du. Deigarria da, baina, zizelkatutako paparrekoak egiten ditu eguzki lore for-



Mikel Sanjuan Azpeitiko bere tailerrean, lanean behar duen tresneriaz inguratuta.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

makoak eta arrakasta itzela izan zuten Durangoko Azokaren bueltan. Bestelako lantxo ugari egiten ditu: kutxatxoak, tabernetarako kartelak, omenaldietarako egurrezko plakak...

Egur mota desberdinak baliatzen ditu lan mota bakoitzera-ko, baina zalantzarik gabe gaitaina da gehien baliatzen duena. «Ez da gehien gustatzen zaidana, aukeratu beharko banu gereziarena hautatu beharko nuke eta; oso egur berezia da», aipatu du. Gaztainak, ordea, tonuekin jokatzeko aukera handiagoa ematen dio. Intxaur beltza da, halaber, oso estima handian duen beste egur mota. «Dagoen garestiena da, baina jendeak ez dio, beharbada, horrenbesteko garrantzirik ematen egurraren marrazkiari eta ez da horrenbeste erabiltzen», nabarmendu du Sanjuanek.

Bestelakoan ere ez du egur kantitate handirik behar izaten eta konfiantzazko zerrategietara joanda lortzen du.

Ibilbide luzean pasadizo ederrak bildu ditu: «Urrestillan egin zen txapelketa batean, bigarren lekuan sailkatu zena niregana etorri zen eta lehenengoarentzat prestatu nuen garaikurra egingo ote nion galdetu zidan asko gustatu zitzaiolako eta etxean apaingarri gisa jarri nahi zuelako». Emozio handiz eta harro gogoratzen du bitxikeria hura.

IRAKASLE LANETAN

Zizelkatzen ikasi duen guztia helarazten ere saiatzen da, eta hori dela eta urteak daramatza Arte eta Diseinu elkartearen eskolak ematen. «Jendea ez da ofizioa ikastera etortzen orain, zaila delako ezerezetik izena egitea eta jendearen enkarguak lor-

tzea; afizioagatik bertaratzen da jendea gehiago». Adin guztietako jendea joaten da bere ikastaroetara, bai 13-14 urteko gazte- txoak, baita erretiroa hartu eta beti buruan izan duten afizio hori ikasteko beta hartzen duen jendea ere. Hala ere, horretan ere krisia igarri dela aipatu du, jendeak ez duelako halako ikastaroetan dirua gastatzeko «freskotasan» bera.

«Lan bakoitzaren atzean ordu mordoa dago; horiek guztiak ezin dira dirutan eskatu, lana erosi nahi duenarentzat gehiegi izango litzatekeelako»

«Lehen taila beste modu batean egiten zen; batez ere, altzariak zizelkatzen ziren, gaur egun taila artistikoagoa egiten da; banakako lanak egiten dira»

Jendea aise sartzen da bere tailerreko atetik barrena. «Herrian izaten dira informatzaileak eta ni halako bat naizela esan daiteke –aipatu du barrez–; jendea tertuliara sarritan etortzen da». Gogoan du, gainera, betidanik izan dela joera hori. «Ni txikia nintzela ere tailerra jendez beteta gogoratzen dut; izatez, gaur tailerra dagoen tokia gehiago zen elkartu eta txikito batzuk hartzekoa eta erakusleihoa dagoen tokian egiten zen lan».

Lan bat amaitu behar duenean ez da ordutegi eta astebururik izaten, baina onartzen du bere aita ez bezala saiatzen dela ahalik eta gehienetan tailerreko ateak itxi eta handik kanporako bizimoduari denbora eskaintzen. Etorkizunerako bestelako pentsamendurik ez du, besteak beste, ez duelako bere burua egurraren bueltan ez den «beste ezertan» imajinatzen.

LAN KUTTUNAK

Gogoan ditu egindako lan asko, baina baten bat aukeratu beharko balu Azpeitiko eraikin batean dagoen ate bat aukeratuko luke: «Inor ez da konturatzen hori lehenik eta behin egurrez egina dagoela eta gero hura eredu hartuta brontzezkoa egin zela». Donostiako Aquariumeko atea, «duen lekuagatik eta ikusgarritasunagatik», da, zalantzarik gabe, Sanjuanek gogoan eta estimu handian duen beste enkargu bat: «Jendeak gehien ikusi duen lana da akaso; inondik ezagutu gabe telefonoz deitu gaituzte lan horrengatik zoriontzeko eta hori asko eskertzen da».

Lan handiak harrotasunez gogoratzen ditu, baina mimoz egin dituen lan txikiak biziki bete izan dute: «Badira lan asko amaitu eta enkargua egin didanari penaz eman dizkiodanak. Gustura sentitzen naiz saldu dudalako, baina, aldi berean, niretzako gordetzeko tentazioa izaten dut; egitea eta amaitzea asko kostatu zaidalako», azaldu du. •

maider.eizmendi@gaur8.info

SARE@N

EUROPA

Hauek dira European bilatu diren hitz batzuk:

> Heinze

Luis Carlos Heinze Brasileko diputatuari eman dio Survival International erakundeak “Urteko arrazista” izeneko saria, atzo Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatze Nazioarteko Eguna ospatu zela eta. Azaroan eskainitako hitzaldi batean, Partido Progressistako politikariak esan zuenez, «Gobernua beltzekin, indioekin, gayekin, lesbianekin eta galtzaile guztiekin oheratzen da». Diputatuen Ganberako Nekazaritza Batzordeko presidentea da Heinze. Jatorrizko herrien aurkako lobbyan esku hartzen du, konpainia handien interesak defenditzeko. Guarniak lobbyaren mehatxupear bizi dira. Munduko Futbol Txapelketa hartu behar duen herrialdearen alde iluna da Survivalek salatutakoa.

> Big Bang

Big Bang eztandatik 13.800 milioi urte igaro diren arren, teoria bera baieztatzen duen froga berri baten jabe dira orain zientzialariak. Izan ere, Massachusettseko Harvard-Smithsonian egoitzako ikerlariak unibertsoaren sorrerarekin batera sortutako grabitazio uhinak aurkitu omen dituzte azken egunotan. Hego Poloan ezarritako BICEP2 teleskopioaren bidez eskuratu zituzten uhinok. Ikerlarien iritziz, kosmologia alorrean galdutako katebegia ziren grabitazio uhin horiek, eta, ikerlariak bi hamarkada luzez aritu dira horiek aurkitu nahian. Erlatibitatearen teoriarekin batera, Albert Einsteinek grabitazio uhin horien existentziaren berri eman zuen orain ehun bat urte, gaur arte, baina, ez zituzten ezagutzen.

> Svoboda

Ukrainako NTV telebista publiko nagusiko zuzendaria ukabilkadaka bota dute Svoboda alderdiko kideek. Asteazken iluntzean, NTV telebitsa kateak Vladimir Putinen diskurtsoaren berri eman ondoren, eskuin muturreko alderdi horretako partaide batzuk Pershyi Panteleymonoven bulegoan muturjoka sartu eta zuzendaria dimititzera behartu zuten. Kieveko gobernuan hiru ministro dituen Svoboda alderdiaren aburuz, Moskuko agente bat zen telebistako zuzendaria. Eskandalua errusiako telebista kateen bidez ezagutarazi da; Ukrainako kateetan, baina, zentsuratu egin dituzte irudiok. Ukrainako lehen ministroa gertakarietik aldentu da, eta ohar bidez arbuia du eraso.

> Bioplastikoa

Plastikozko botilak ingurumeneko arazo larria dira mundu osoan. Urtero 20 milioi tona sortzen dira. Ingurumenari errespetu handiagoa dioten material berrien bila ari dira zientzialariak. Madrilgo Ikerketa Biologikoen Zentroan, plastikozko produktuen hurrengo belaunaldian rol garrantzitsua jokatu duen bakterio batekin ari dira lanean. Bakteriari esker, hondakin organikoetatik abiatuta polimeroak sortzeko gai izan dira. Proben fasean daude. Badira algak ikertzen ari diren ikerlariak ere. Herbehereetan, Wageningeneko Ikerketa Zentroan frogatu dutenez, alga mota batzuek bioplastikoak sortzea ahalbidetuko luketen azukre eta hidrokarburoen kopuru handiak sor ditzakete. Etorkizuna hor omen dago.



KUTXATEKA.COM

ALDREBESTU EGIN ZAIGU UDABERRIAREN HASTAPENA

Apurka inguratu dira zapata zurriak iturri ondora. Apurka, amaren begi-belarriek intentzioa suma ez dezaten. 1959ko udaberriak eduki epeldu du Donostiako Alderdi Ederreko lorategia eta, galtza aukeran motzeziak eskertu dituzten arren, egarria eman die sobran duten jertseak. Dastatu aurretik sumatu dute uraren freskotasuna, horregatik zabaldu dute, gozamenaz, ahoa. 2014ko udaberriaren hastapenak ere ura du protagonista. Behetik beharrean, ordea, zerutik iritsi da freskura. Izango dira iturriez gozatzeko aukerak. **Paco MARÍ. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Kazetaria



Munstro ehiza Donibane Lohizunen

Baionako gobernadoreak horrela azaldu zion Luis XIV.a erregeari: «Harrapatutako ontziak elkarri lotuta daude portuan, bata bestearen ondoan. Eta oinez pasa liteke, Donibane Lohizunen berorrek ostatu hartu zuen palaziotik, Ziburuko itsasertzeraino, ontziz ontzi».

Horixe izan zen, mendetan, Donibane Lohizuneko industria nagusia: itsaso zabalean etsaien ontziak aboratu, portura ekarri, harrapatutako marinelen truke ordainsariak eskatu eta lapurtutako azukrea, kotoia, burdina, olio, zura eta abarrak Baionako eta Bordeleko merkatariei saldu. Erregeak baimena ematen zien itsaslapurretak egiteko, kortsoan aritzeko, harripakinen zati baten truke.

Lohizundarrek bazeukaten kortsario beldurgarrienak izateko eskarmentua. Ternuko kostea esploratu zuten lehenengoetakoa izan ziren, XVI. mendearen hasiera-hasieran. Bakailaoa arrantzatzeri joan ziren, balea mordoa aurkitu zuten eta negozioerik oparoenari ekin zioten: balearen olioak garaiko petrolioa zen, eta lohizundarrek (euskaldunek, oro har) urtero ehunka balea ehizatu eta milaka tona olio ekartzen zuten, Europa osoko portuetan saltzeko. Ehizak behera egin zuenean, lohizundarrek euren trebetasuna birziklatu zuten: arpoiaz eta lantzaz baleak hil ordez, herrialde etsaietako marinela hiltzen hasi ziren. Gaur egungo enpresa hizkeran, kortsario haiek «ekintzaileak» eta «berritzaileak» direla esango genuke.

Eta Donibane Lohizungo badia, puntako berrikuntza gunea. Zokoako portuan lotzen zituen ontziak Johannes Suigaraitxipi kortsarioak. Artikoraino joaten zen baleazale holandarrak jazartzen, eta ehun itsasontzi baino gehiago harrapatu zituen. Donibanen bertan hasi zen Michel Le Basque bukaneroa, gero negozioa nazioartera zabaldu zuen aitzindaria: Dortokaren Irlan ezarri zuen egoitza, Karibearen ontziak harrapatzen ibiltzen zen, Marakaibo arpilatu zuen eta, Cartagena de Indiasko gobernadore espainiarrak bera

harrapatzeko fragata bat itsasoratu zuenean, Michel Le Basque fragata hura abordatu eta atxilotutako marinela bueltan bidali zituen mezu batekin: «Eskerrik asko, gobernadore jauna, halako ontzi politarengatik».

**Aberastasuna eta boterea islatzeko, armadore lohizundar-
rak jauregiak eraikitzen hasi ziren portu ondoan: XVII.
mendeko Manhattan txiki bat. Hantxe dauzkagu Joanoenia
palazioa, Betheder Baita edo Luis XIV.aren Etxea, Baionako go-
bernadoreak enperadoreari aipatzen zion hura.**

Jauregi horren jatorrizko izena Lohobiage Enea da. Luis XIV.ak bertan hartu zuen ostatu 1660an, Maria Teresa infanta espainiarrarekin Donibane Lohizunen ezkondu zenean, Piriñoetako Hitzarmena burutzeko. Lohobiagetarrak armadore botetsuak ziren, Ozeano Artikoan baleak hiltzen, zatitzen eta urtzen aritzetik, erregeari etxea uztera igarotakoak.

Erregeak eta erreginak ez zuten agian balearen odol eta koi-

pe kiratsik nabarituko palazio haietan, baina armadore aberatsek ondo gogoan zeukaten. Adibidez: Joanenia etxeari Infantaren Palazioa ere deitzen zaio, Maria Teresa bertan egon zelako ezkontzaren aurretik, eta oso dekorazio bitxia dauka. Habeetan pintura harrigarriak ageri dira, izaki mitologikoak, fruitu exotikoak, izar multzoak eta itsasoetako deabru eta munstroak. «Des monstres et prodiges» liburutik ateratako irudiak dira. 1575eko liburu horretan, Ambroise Paré zirujauak munduan diren munstroen katalogo zehatz eta ikaragarria osatu zuen... eta Donibane Lohizunen baleak nola ehizatzen zituzten ere kontatu zuen atal batean. Eta Luis XIV.aren Etxean ere, Lohobiage Enean alegia, zetazeoen ehizaren irudiak ikus daitezke. Habe batean Jonas ageri da balearen ahotik ateratzen.

Oso gogoan zeukaten, eta harro erakusten zieten enperadorei euskal kostaldeko oparotasuna nondik zetorren: munstroen ehizatik. •



Lohitzundarrek kortsario beldurgarriak izateko eskarmentua zuten. GAUR8

osasuna / hiriaren lo(r)aldia / **komunikazioa**

3. BEGIRADA:



GAUR8 ireki gure leihoa

